





Gorka Ovejero

«Jendea informatuta
egotea da
AHTren aurkako
txertorik onena»



- **Miguel Angel Cabodevilla** Yasuniko oihaneko biztanleen tragedia ezkutuz
- **Josefina Lamberto** Fusilatuen senide eta pobre izateagatik, bizitza osoan jaso ditu zigorra eta mespretxua
- **Makiak** Pedro Barrosoren taldea harrapatu zutenekoa
- **Asun Garikano** «Gure oroimen historikoan egon beharko lukete Kaliforniaren esplorazioan eta kolonizazioan parte hartu zuten euskaldunek»
- **Idoya Iragarri**, desobedientziaz «Gaur lau bagara eta bihar berrogei, Estatuari desoreka sortuko diogu»
- **Net Hurbil** Elitea abiadura handian, gainerakoak *low-costen*



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 130 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathona
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko urtarrilaren 12a, 2.398. zenbakia

ASTEKO GAIA

MAKIAK EUSKAL HERRIAN Franco lotsarazi zuen fusilatzea.
AITOR AZURKI / 4

PERTSONAIA

GORKA OVEJERO GANBOA: «Krisiak lagundu digu jendeak
AHTren aurkako jarrera hartzeko». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

MIGUEL ANGEL CABODEVILLA: «Ekuadorreko oihaneko
herrien amaiera oso gertu egon liteke».
KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 14

EDERTASUNA Jarrera kontua da dena. AXIER LOPEZ / 18

IRITZIAREN LEIHOA

SOLDATAK JOMUGAN MIKEL ZURBANO / 20

GABONETAKO TOPIKOKA ZOPA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 22

EZINBESTEKO TANTAK AMETS MARTINEZ MORENO / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Txik eta txok. ITXARO BORDA / 22

BERTSO BERRIAK Abortuaren legeari jarriak. I. LAZKANO / 23

ZIRTA Hamalaura ezker... JOXERRA GARZIA / 24

ERDIKO KAIERA

ASUN GARIKANO: «Kaliforniari eta bertako biztanleei
buruzko lehenengo albisteak dira liburuko dokumentuak».
JON ARIZKUN / 26

NIKOLAS LEKUONA, JAIOTZAREN MENDEURRENEAN

Abangoardiaren katebegia. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE, MIKEL ASURMENDI / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 33

ALEA Bizitzaren tempoak. MYRIAM GARZIA / 34

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

JOSEFINA LAMBERTO YOLDI: «Pozik nago, baina ez guztiz».
KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 39

IDOYA IRAGORRI: «Zerbait sortzen atxilotuko naute».
ANDER PEREZ / 42

LANBIDE HEZIKETAKO PRAKTIKAK Zergatik ez
aukeratutako hezkuntza ereduan? MARIJO DEOGRACIAS / 44

EMAKUMEEN ESKUBIDEAK Abortuaren legea aldatzearen
kontra PPko boto emaileak ere. SAIOA ALKAIZA GUALLAR,
GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL AHTk hiltzen du Europan ehun urtez osatutako
tren sarea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Franco lotsarazi zuen fusilatzea

Pedro Barroso, Euskadiko Gerrillari Erakundeko komandantea, Hego Euskal Herrian sartu zen lehen euskal maki taldeko burua zen. 1945eko udan epaitu zuten Donostian, eta Franco eta nazioarteko diplomatiko asko bertan zirenez, Gasteizera eraman zuten fusilatzerara, eskandalua saihesteko. Irailaren 11 zen.

| AITOR AZURKI |

HONDARRIBIA, 1944ko azaroaren 18a, gaua. Lehen euskal gerrillari taldeko aurreneko bost kideak txalupan hondartzaratu dira Hendaiaetik. Pedro Barroso Segovia komandante komunista dute buru. Helburua, Gipuzkoan eta Bizkaian makiak kokatu eta barreiatzeko saiakera egitea.

Eurentzat azken bidaia izango zen hura. Batik bat Pedro Barrosorentzat. Izan ere, hamar gizonez eta emakume batez osatutako taldea egun gutxira atxilotu zuen polizia frankistak. Hasiera batean Donostiako Loiolako kuartelean egindako gerrapaiketan gehienak heriotzara kondenatu nahi bazituzten ere, azkenean komandanteari ezarri zioten zigor gorena.

“Azkeneko aldiz epaiketa baino lehen ikusi nuen Barroso, patioan ginelatzen gainerako presoekin. Bera ziur zen fusilatuko zutela. Epaiaketaren ondoren, heriotza zigorrera kondenatu zuten eta soilik morsez hitz egiten genuen biok ziega batetik bestera. Kartzelan ezagutu nuen *El Dia* egunkariko zuzendaria, nazionalista, eta, heriotza zigorra konmutatzeko saiakera egiteko eskatu nion, baina ezin izan zuen deus egin”, gogoan du 98 urteko Marcelo Usabiagak, aipatu taldeko maki ohiak.

Hala ere, hura fusilatzeke arazo handi bat zuten faxistek. “Uda izanik, Gasteizera eraman behar izan zuten fusilatzerara, hilabete horiek Donostian igarotzen zituztelako bai *Candilloak*, bai nazioarteko ordezkari diplomatiko guztiek. Nazioarteko lotsa izan zitekeen fusilamendu hura, eta modu ‘diskretu’

batez hil zuten”, azaldu du Mikel Rodríguez historialari eta *Maquis. La guerrilla vasca. 1938-1962* liburuaren egileak.

“Barrosok Ondarretako kartzelako apaizarekin pasa nahi izan zuen azken gaua, oso pertsona ona zelako, nazionalista. Hala izan zen, eta Gasteiztik itzuli zenean, Barroso pertsona zintzoa eta amaierara arte ausarta izan zela esan zuen apaizak”, dio Usabiagak, azken uneok berreskuratzu.

Gerrillari guztiak poliziaren atzaparretan erori ziren, batzuk Meliton Manzanasek torturatu zituen –tarteetan Barroso bera–. José Gandiak baino ez zuen lortu ihes egitea

Euskal makien abangoardia

“Gu maki talde berezi baten etorreraren zain geunden. Eibarren hori zen gure kezka bakarra, eurei laguntzea. Hamar bat ginen eta kalean batzen ginen”. Ignacio Gaspar Álvarez zendutako gallartar komunistaren hitzak dira, Eibarren gerrillarion laguntza-taldekidea zena une horietan.

Barroso eta Usabiagaren taldea Gipuzkoan sartu eta hurrengo gauean, Bernardo Zamora Iriarte *Beñat* kontrabandistak beste sei kideak ere pasa zituen txalupan Hego Euskal Herrira.

Hala, gerrilla matxinada piztuko zuen aurreneko taldea bi zatitan bidali zuten Gipuzkoara. Argazki bana zeramaten denek, Iparraldean atereak, Hegoaldera pasatakoan dokumentazio faltsua egiteko. “Bigotea kamuflatzeko utzi nuen”, gogoan du Usabiagak. Ondoren, Gipuzkoan jada, Donostia, Eibar eta Bilborako bidea hartu zuten borrokalariak hiru taldetan banaturik.

“*Otxabiña*, Huerga eta González Suárez etorri ziren Eibarrera, eta desagertutako Sau-



1944ko azaroan gerrillari taldeek muga igaro zutenean, argazki bana zeramaten Hego Euskal Herrian dokumentazio faltsua egiteko. Poliziak argazki horiek atzeman zizkien atxilotu zituenean; Ferrolgo artxibo militarrean egon dira gaur arte, argitara gabe. Goian, Pedro Barroso gerrillarien buruaren argazkia Irungo mugako poliziaren dokumentuan itsatsia.

txi baserrian gorde nituen. Ez zutenez dokumentaziorik, González Suárezi nik eman nion nirea. Hala erori ginen gu, ziztu bizian... Etxean harrapatu ninduten lo poliziek eta besteak baserrian”, dio Álvarezek. Denak poliziaren atzaparretan erori ziren –batzuek, tartean Barrosok berak, Melitón Manzanas ospetsuaren torturak jasan zituzten–. Batek, ordea, ihes egitea lortu zuen: José Gandiak, hain zuzen.

Pedro Barroso, zehazki, abenduaren 3an atxilotu zuten Bilbon. 1916an Toledon (Espainia) sortua, lanbidez igeltseroa zen Bartzelonan. Komunista, PSUC alderdikoa kidea izaki, 1946ko Gerran kapitain eta Tole-doko Herri Tribunaleko kide izan zen. Atxilotu eta Bartzelonako La Modelo espetxean sartu zuten 30 urteko zigorrarekin. Baina 1944ko uztaillean Iparraldera ihes egitea erdietsi eta berehala maki sartu zen, 102. Dibisioko komandante gisa; azkenean, gerrillari talde bereziarekin muga igarotzean atxilotu zuten arte. Gerrillari batek taldekideen izen-abizenak eta karguak jartzen zituen paper bat zerman eta hori nahikoa izan zen epaile frankistak Barrosori heriotza zigorra

ezartzeko. “Behin eta berriz esan nien soinean datuak eta paperak ez eramateko. Azkenean, guretzat salbazioa izan zena –ni soldadu hutsa nintzela esan bainion epaileari–, Barrosorentzat akabera izan zen”, gogoratu du Usabiagak.

Makia Hegoaldean baina

1944. urtean Francoren aurkako gerrillak sartzen hasi ziren Nafarroan. Baina porrot handia izan zela ikusirik –frankistek euren indar armatu eta polizialak bertan batu baitzituzten–, Aran bailarako inbasioa hasi zuten *Espainiako Birkonkista Operazioa*-ren barnean. Taldeotan hamaika euskaldun zeuden; baita atzerritar antifaxistak ere. Hala ere, azkenean Arango eraso bortitza ere hanka-sartze itzela izan zen, makina bat gerrillari hil baitzituzten.

Bi porrot horien ostean, borrokalariak talde txikitik sartzeari erabaki zuten antifrankistek. Halatan, Frantzia ziren maki espainiarren erakundearen barnean Euskadiko Gerrillari Erakundea sortu zuten, Victorio Vicuña lasartearra buru zela. Muga igarotzeko aparatua Asensio Arriolabengoak zuzentzen zuen; itsasoz eta batik bat Nafarroatik

MAKIAK EUSKAL HERRIAN



Ezker-eskuin: Regino González Moro, Nicolas Chopitea, Marcelo Usabiaga, Manuel Mico, José González Suárez, José Gandia (ihes egitea lortu zuen taldekide bakarra) Javier Lapeira, Esteban Huerga, Bernardo Zamora Iriarte Beñat (mugalaria), eta Victorina Castan (taldeko emakume bakarra).

oinez igaro ohi ziren makiak. “Espainiar gerrilla-zuzendaritzan euskaldunak baziren asko, baina ezin da jakin zehazki zenbat euskaldun zeuden denera makietan, han-hemenka baitzeuden nahasturik; garaiko PCEn dokumentazio asko ez da existitzen edo oso kalteturik dago. Gainera, izenen zerrendak ikustearekin ez da nahikoa”, dio Rodríguezek. Eta Euskadiko Gerrillari Erakundearen zenbat lagun ote? “Behe Pirinioetako Brigadak, esaterako, Iparraldeko gune menditsuenak naziengandik askatu zituen, eta 300 lagun inguru ziren”, azaldu du euskal makien kopuruz. Usabiagak ere zenbaki bera bota du: 300 inguru.

Asmo argi eta garbia zuten: Bizkaian eta Gipuzkoan sustatuz, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko gune menditsuetan jardutea. “Baina hemen mendiak oso populaturik daudenez, ez dira nahikoak makiak gordezke. Hori dela eta, ondoren, hiri-gerrilla ezartzeko saiakera egin zuten Bilbon”, esplikatu du historialariak.

Haatik, gerrilla ez zen Euskal Herrian errotu. Lehenik, “poliziak eta armadak atxilotutakoak eta hildakoak hamaika” izan zirelako. Ondarretako kartzelan, kasu, “80 edo 90 maki” bazirela adierazi du Usabiagak. Bigarren zioa, herritarren laguntzarik eza izan zen: “Hegoaldean jendeak zuen beldurraren ondorioz —dio Rodríguezek—, maki batzuk Iparraldera itzuli ziren, beste batzuek desertatu eta euren herrietara jo zuten bizitza normala egitera, eta beste batzuek Europako Mendietara jo zuten. Egokitzeo zailtasun handiak izan zituzten Euskadin”.

Bi aldeetako ezberdintasunak

Iparraldean ziren euskaldun gerrillariak animoa goran zuten oso: “Iparraldera heldu bezain laster, *Otxabiña* eibartarra ezagutu

nuen eta egun gutxitan Eibar hartuko genuela esan zidan! Ni zur eta lur geratu nintzen berari begira, Gipuzkoatik ihes egin bainuen eta banekien nolakoa zen egoera”, kontatu du Usabiagak bere taldekide Víctor Lumberri *Otxabiñari* buruz hizketan. “Desertzioen gakoa da hori: gerrillari askok ez zuten pentsatzen halako borroka latzak izango zirenik, euren atzetik aliatuak sartuko zirela ere uste zuten, eta herria eurekin matxinatuko zela diktaduraren aurka. Nazioarteko demokraziek Francorekin zerbait egingo zutela pentsatzen zuten, gainera. Eta oso

bestelako egoera topatu zuten Hegoaldera joandakoan: laguntzarik ez, jazarpen ikaragarria... Barrosoren taldeak, orde, bazekien frankismoa ez zela egun batetik bestera eroriko”, gaineratu du Rodríguezek.

Hegoaldeko herritarren artean izua handia zen oso. Hala berretsi du maki zaharrak: “Heldu ondoren Donostiara joan ginen, baina

garai horretan beldur handia zegoen gizartean eta ez genuen ezkutatzeko etxerik aurkitzen. Lagunengana joan eta inork ez gintuen nahi”.

Honi beste gauza bat lotu behar zitzaion: infiltratuak. “Guardia zibilek eta soldaduek muga zeharkatzen zuten maiz, batzuetan kalez jantzita makietan infiltratu nahian, eta beste batzuetan uniformeaz, tiroak jotzeko prest. Zenbait gerrillari tiroka hil zituzten Iparraldean”, azpimarratu du Rodríguezek. Usabiagak, hain zuzen ere, espia baten kasua oso gogoan du: “Zulueta delako bat ezagutu nuen Iparraldean; berarekin garagardo batzuk eta guzti edan nituen. Gu atxilotu ondoren Ondarretako kartzelan azaldu zitzaigun poliziarekin; denok ezagutu gintuen! Espetxean geundela, Barrosok esan

Arango bailarako porrotaren ostean, talde txikitik sartzea erabaki zuten antifrankistek. Testuinguru horretan sortu zen Euskadiko Gerrillari Erakundea, Victorio Vicuña lasartearra buru zela

MAKIAK EUSKAL HERRIAN



zidanez, hura harrapatu eta torturatu egin zuten, ihes egitea lortu zuen arte: makietan 50 infiltratu zeudela onartu zien Zuluetak". Badirudi Zulueta Realeko atezainaren anaia zela, militar karguduna ofizioz, Rodríguezen arabera.

Hasieran ideologia ugari

Gerrilla bere osotasunean komunista zela pentsatu dute askok, baina hori ez zen hala; ez hasieran behintzat. 1944ko udan, Frantzia naziengandik askatzerakoan, alemaniarren aurka gerrillari talde dezentek ari ziren borrokan. "Ez zeramaten komunista izenik, soilik UNEren pean (Unión Nacional Española) zeuden", dio historialariak.

Hortaz, alemaniarren aurka borrokatu nahi zuen jende anitza zegoen makien artean, eta jende berri asko ere gehitu zitzaion gainera: "Sozialistak baziren, EAJko jendea ere bai, akaso ez oso konbentziturik, baina faxismoaren aurka borroka egiteko bide bakarra zelako sartutakoak, baita ANVko kide dezentek ere", azaldu du makietan adituak. Nolanahi ere, horietako batzuk gerrillatik irten ziren, EAJk sorturiko Gernika Batailoia osatuz; 1945ean nazien aurka borrokatu zuten Atlantiar kostaldean.

Gerrilla komunista kutsu handiagoa hartzen joan zen heinean, "pixkana euskaldun askok makiak utzi zituzten", nahiz eta 1945 hasieran oraindik komunistak ez ziren borro-

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

TOLESTU



Eskuinean Víctor Lecumberri *Otxabiña* eibartar ezaguna, gerrilla operazioan parte hartu zuen buruetako bat. Ezkerrean Gaspar Álvarez gallartarra, gerrillariak lagundu zituen kidea. Biak atxilotu zituzten. Argazkia 1953an aterea dago, Kantabriako El Dueso presondegian.

kalariak baziren tartean: “Batzuetan, gezurra badirudi ere, bizitza aurrera ateratzeko modu bakarra zen hura. Izan ere, atzerritarra baldin bazinen garaiotako Frantzian, eta lanik gabea, nora joan ere ez zenuen”, gaineratu du Rodríguez. Hala ere, 1945etik aurrera komunistak baino ez ziren geratu talde horietan.

Euskal gerrillariak asturiarrekin

Euskadiko Gerrillari Erakundearen jarduna ez zela batere eraginkorra ikusi zuten PCEn 1945 urte erdialdean, eta Europako Mendietako gerrilla taldeari atxiki zioten Euskadikoa. Hala, asturiar makien artean bi euskal gerrillari talde zeuden.

Bi maki talde horiek Bizkaian jarduteko saiakera egin zuten 1946an. “Une horretan gerrillarietako batzuk ez dira asturiar mendietatik jaistera ausartuko. Azkenean, soilik bospasei maki joan ziren Bilbo aldera, Mateo Obraren gidaritzapean, baina poliziak berehalakoan atxilotu zituen”. Harrez geroztik

Euskal Herriko hainbat lekutan PCE arituko da borrokan, besteak beste bahiketaren bat eginez. Euskadiko Gerrillari Erakundea –aktiboki, bederen– desagertutzat eman zitekeen.

1947tik aurrera ez zen gerrilla armaturik antolatu diktaduraren aurka, baina bai ordea pertsonak Ipar Euskal Herrira igarotzeko sare bat. “Gidariak zituzten, Alderdi Komunistako pertsona adierazgarriak eta gerrillariak Frantziara bidaltzeko”.

Zehazki, euskal lurretan sortutako azken maki mugimendua 1962. urtekoa izan zen. *El Campesino* komunista “ez ortodoxoaren” taldea Iparraldetik Nafarroan sartu zen eta Guardia Zibilarekin topo egin ondoren borrokan aritu ziren. “Kronologikoki ekin-tza militar batzuk egiten jarraitu zuten, baina jada ez dira Euskadiko Gerrillari Erakundeak eginikoak. Andaluziar edo asturiar makiak dira, Frantziara itzuli nahian poliziei-kin eta soldaduekin tiroka”, adierazi du Rodríguez.

“Alaitasunez egin dut dena”

Victorio Vicuña, Eduardo Aparicio, Carmen Eixarch, Marichu Guridi, José Larreta, Ramón Santamaría, Vicente Arizaga... Asko dira Euskal Herrian maki izandakoak edo gerrillari lagundu ziotenak. “Batzuk oso bitalistak dira, idealen alde bizitza arriskatu behar dela zeharo konbentzitutak daudenak, eta badira beste batzuk nahikoa triste bizi izan direnak azken urteotan, borroka horrek guztiak zer zentzu izan zuen pentsatzen dutenak. Sobiet Batasunaren erorketak iparrrik gabe utzi zituen gehienak. Dena dela, guztiengandik ikas liteke asko”, dio horietako batzuk gertutik ezagutu dituen historialariak.

Ezbairik gabe, askatasunaren alde ahalegin handia egin zuten pertsonak dira denak, baina gizarteak zokoraturik utzi ditu: “Historiako galtzaile handienak dira komunistak: egin zuten gauzatariko batek ere ez du laguntza mediatikorik izan. Demokrazia heldutakoan, PSOEk bere mitoak jaso zituen, EAJk bere pertsonak, eta, komunistek soilik hildakoak zituzten astintzeko... Zoritzarrez, ahazturiko agureak izaten amaitu dute”.

Ahanzturaren zorigaitzari beste bat datorkio gainera: heriotzarena, gero eta gutxiago geratzen baitira gure artean: “Ez naiz ezertaz damutzen, eta guztia berriz egingo nuke”, onartu digu irmo Marcelo Usabiagak. Victorio Vicuña zenak ere honakoa esan zuen: “Begira, ni beti egon naiz egon behar nuen lekuan. Banekien bizia jokatzeko nuela, baina alaitasunez egin dut dena”. ■



GORKA OVEJERO GANBOA

«Krisiak lagundu digu jendeak AHTren aurkako jarrera hartzeko»

Tartalari sakandarra. Okzitaniako Tolosan duela bi urte Yolanda Barcinari tarta aurpegian igurtzi zion lehena da bera. Ekintza horrengatik Auzitegi Nazionalak Julio Villanueva, Ibon Garcia eta berari bina urteko espetxe zigorra ezarri zien, Mikel Alvarez urtebetekoa eta 900 euro banako isuna lauroi. Kartzelara joan beharrik ez, izualdi ederra bai ordea.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Zumarragan jaiotako sakandarra zara?

Aita Ordizian jaioa, aittun-amiña asturiarrak eta ama Arruazukoa, baina gaztetan Gipuzkoa aldera lan egitera joandakoa. 18 urte nituelarik amarekin itzuli ginen Arruazura

eta herriko ostatua zabaldu genuen. Garai berean unibertsitatean hasi nintzen soziologia ikasten Iruñean. Hemengo euskara egiten dudanez jende askok ez daki Gipuzkoan jaioa naizela.



Nafarroako Unibertsitate Publikoaren hasmenta garaian iritsi zinen zu. Gainera urte askotxo eman zenuen han, ez da hala?

Bizitza osoa daramat unibertsitatean matrikulatuta! Bederatzi urte egon nintzen soziologian. Ez nuen bukatu ez ninduelako gehiegi erakartzen. Ondoren magisteritza hasi nuen Gasteizen eta han jarraitzen dut. Orain laugarren mailan ari naiz eta espezializazioa egiteko kulturartekotasuna hautatu dut. Oso polita izateaz gain, hemen Sakanako Mankomunitatean Emigrazio eta Aniztasun Batzordeko buru nagoenez oso interesgarria iruditzen zait.

NUPen, ikasketetatik at bestelako eginkizuntan ibili zinen su eta gar.

Bai, Ikasle Abertzaleak taldea eratu genuen eta Euskara Taldean ere, ikasleen ordezkari gisa, hizkuntz normalkuntzarako batzordean aritu nintzen. Hiruzpalau euskara plangintza egin genituen, baina kasurik ez ziguten egiten. Oso erreta eta nazkatua bukatu nuen NUPen. Horregatik erabaki nuen Gasteiza joatea. Euskararekiko batzuen mespretxua eta gehienen utzikeria ikaragarria zen. Gasteizen normaltasun eta errespetu handiagoa dago.

Zer edo zer lortu zenuten, hala ere?

Unibertsitatearen hasierak ziren eta enborrezko ikasgaietan ere euskara egotea lortu genuen bederen. Orain, hogeitaz urte pasata, egoera ez

NORTASUN AGIRIA

Gorka Ovejero Ganboa. Zumarragan sortua 1972ko abenduaren 26an, gaztetatik bizi da Sakanako Arruazu herrian, amaren sorterrian. "Beti herri mugimenduetan ibili naiz gustura". Hasieran euskalgintzan: Oinarriak, Euskal Herrian Euskaraz edo Bierrik euskara elkartean, besteak beste. Askapenaren parte hartu izan du, bereziki Argentina eta Txileren artean bizi diren maputxeekiko harremanetan. Azken urteotan AHT Elkarlanean eta Mugitu! Abiadura Handiko Trenaren aurkako mugimenduetan dabil buru-belarri. Barazkizalea eta irratizalea. Zazpi urtez aritu da irratsaio bat egiten Belexe irratan.

da gehiegi aldatu. Gradu bakarra, magisteritza, egin daiteke euskaraz eta gainerakoetan euskararen eskaintza oso murrizta da. Vascuencearen lege *kutre* horrek ez du hezkuntza unibertsitarioa arautzen eta horretaz baliatzen dira ezer ez egiteko. Hori bezalako mila adibide daude egunerokoan: Euskalerrria Irratia 25 urte lizentziarik gabe, EITB Lurreko Telebista Digitaletik ezin hartzea, AEK eta IKA batere diru-laguntzarik gabe uztea, udalei ere dirurik ez euskara sustatzeko... Nafarroa.

Sakanako Mankomunitatean ere urte askotxo daramazu lanean.

Bai. Duela hamaika urte eta erdi sartu eta lau

Mugimendu indartsuena

“Lemoiz ondoren AHTren aurkakoa izan da jarraipen eta aniztasun handiena izan duen mugimendua. Gaur egun mugimendu indartsuena Nafarroan ari da. Krisiak murrizketak ekarri ditu, baina lanak aurrera doaz historiako azpiegiturarik garestienera”.

urtez buru izan nintzen. Beti ostalaritzan aritu izan naizenez lanean denbora eta aukera izan dut Mankomunitaterako lan egiteko liberratu behar izan gabe. Egundak Arruazuko Batzalarre alderdiko ordezkari gisa nago eta hemengo udalean zinegotzi.

Sakanan langabezi tasa %20tik gorakoa da. 20.000 pasatxo biztanle duen eskualdean 2.000 inguru ari dira lan bila. Bereziki jipoituta-ko eskualdea da Sakana?

Nik pentsatzen nuen baietz eta gainera erabaki politiko bat tartean zegoe-lako, baina gaur egun ikusten da Erriberako herri batzuetan Sakanan bezain gaizki daudela. Gertatzen dena da han ez dutela protestarik egiten. Hemen kexatzeko ohitura, azpiegiturak eta mugimendu politiko zein sindikalak baditugu. Hala ere, kalean jendea mugiaraztea zaila da. Jendeak ohitura du itxoiteko ea Gobernuak zer egiten duen edo enpresa honetan edo horretan hartzen ote nauten lanerako. Sakanan, protestaz gain, Mankomunitatetik garapen agentzia bat abiarazi dugu Sakantzen sarearekin eta Cedernarekin elkar-lanean. Gure filosofia da guk geure ahalme-nekin eta gure ideiekin zerbait aurrera eramatea. Adibide moduan aipatu daiteke hemen turismoa nahiko ahaztuta dugula. Badira landetxe eta ostatuak, baina horretaz gain falta dira bestelako aukerak. Bertako baliabide,

“Zaila da ideia berritzaile, eraginkor eta dibertigarriak aurkitzea. Buru arina behar da halakoak pentsatzeko. Errepresio itzela izango dela pentsatzen baduzu ez duzu inoiz ezer egingo”

jaki, merkatu, kultura eta ohiturekin lotutako zerbait egin nahi dugu.

Sakanaz ari garenean askotan ematen du oso eskualde homogeneoa dela.

Egia, baina oso anitza da arlo guztietan: politikoki, linguistikoki... Arakil udalerria oso herri txikiak dira eta oso erdaldunduak. Altsasu oso handia da, industrializatu eta etorkin kopuru handia duena. Erdialdea euskaldunagoa dugu. Hamar urtez aritu ginen Sakandarren Eguna antolatzen eta utzi egin genuen ez zelako mamitzen. Hizkuntza aldetik ere alde handiak daude: Arakilen *bertze* eta *ortzegun* erabiltzen zen; Burundan, Koldo Zuazok esanda, Araban egiten zenaren azken aztarnak daude; eta Aranatzan nafarrera egiten da, baina Etxarrin gipuzkera aldera jotzen du gehiago Gipuzkoarekin duen harremanagatik. Herri bakoitzak bere hizkera du eta gu berehala ohartzen gara

nongoa den jendea. Etxarrin euskara asko bizkortu da, Arbizun mantentzen da, Lakuntzan ezagutza igo da baina ez dute egiten, Arruazun muga gara, Arakilen sartu aurretik hau baita transmisioa galdu ez zen azken herria eta asko ari da bizkortzen. Herri

askotan hurrek eta gazteek badakite baina erabilera eskasa da. Politikoki ere Arakil UPN-ren oso aldekoa izan da. Olazti eta Altsasun PSOEek indarra du emigratioagatik. Ezker Abertzalea oso indartsu Etxarrin, Lakuntzan... Herri askotan. Irudia dugu oso ezker-tiarra eta oso abertzalea dela, baina kontuz!, denetik dago-eta. Bizigarria da Sakanan bizitzea, ez zara aspertzen.

Hemen zergatik dago horren bizirik AHTren aurkako mugimendua?

Aralarko magalean oso kalte larriak eragingo dituelako. Begi-bistakoa da eta horregatik



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Etorkizuneko Sakana

“Sakanakoa ikaragarria da: orain AHT izango dugu Aralarko magalean, bestaldetik Urbasa mendilerroko beheko aldetik 400 mila voltioko autopista elektrikoa pasarazi nahi dute, Olaztin errauskailua zabalduko dute eta azkena Urbasako frackingarena izan da. Urbasa eremu babestua da, hala ere, duela hamabi urte Nafarroako Gobernuak petrolio eta gas naturalaren bila zebilen enpresa bati dinamita erabiltzeko baimena eman zion. Parke Natural batean zundaketak egingo dituzte, baina ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu Bardeetako parkean tiro poligonoa dagoela. Sakanan industria galbidean doa eta krisia pixka bat arintzen denean proiektu horiek guztiak aktibatuko dituzte ziztu bizian. Eta gero esaten digute zergatik ez dugun turismoa bultzatzen. Baina horrela segituz gero, zer eskainiko diogu bisitariari? UPN, PSOE eta EAJren eredu hau da. Hiriak indartu nahi dituzte eta haien artean gelditzen dena zerbitzuetarako erabili”.



hemen jendea berehala hasi zen elkartzen AHT Gelditu! plataformaren inguruan. Honekin batera duela hiru urte AHT Mugitu! antolatu genuen desobedientzia bultzatzeko. 80ko hamarkadan AHTren aurkako Asanbladak izugarrizko lan handia egin zuen informazioa zabaltzeko eta jendea kontzientziatzeko, baina behin lanak hasita desobedientzia izaten da ia aukera bakarra. Bitartean informazioa zabaltzen jarraitu behar duzu, jendea informatua egotea AHTren aurkako txertorik onena delako. Ordu eta erdiko hitzaldia ematen duzu datuak mahai gainean jarri eta hor jendeak *flipatu* egiten du gastatzen ari diren dirutzarekin eta hor dagoen ustelkeria guztiarekin. Krisiak lagundu digu jendeak AHTren aurkako jarrera hartzeko. Dena den, gauzak oso desberdin ikusten dira hiritik edo herrietatik. Horren froga da gehien mugitu garenak trenaren eragin kaltegarri guztiak sufritu behar ditugunak garena: Durangaldea, Goierri, Arabako Urbina inguruko jendea, gu...

Zergatik hautatu duzue desobedientziaren bidea?

2006an Urbina aldean AHTren lehen lanak hasi eta 2007-2008an zabaldu ziren. Obren okupazioak egin ziren. Errepresioa oso handia zenez, hausnarketa egin eta erabaki genuen ekintza desberdinak egitea: alde batetik ekintza jendetsuak hiriguneetan batez ere, hiria jende gehien bizi eta informazio gutxien dagoen toki delako. Bestaldetik ekintza ikusgarriak mezu bati lotutakoak eta jendearen arreta deituko zutenak. Ibaietako urak berdez tindatu genituen edo 100.000 isun jarri genituen autoetan. Hor azaltzen genuena zen isuna jartzen geniola ez gaizki aparkatuta ego-

teagatik, baizik eta AHT aurrera eramateko dirutza handia behar delako eta hori denon artean ordaindu behar dugulako. Euskal Herriko herritar bakoitzak 3.700 euro jarriko dugu gutxienez.

Zalantzarik gabe Barcina tartakatzea ikusgarriena izan da urte hauetan.

Tartakadena hasieran ekintza ikusgarri bezala pentsatua zegoen, baina azkenean oso gogorra bilakatu zen eta ondorio garrantzitsuak izan ditu.

Zuentzat kartzelara joan beharrik ez izateaz gain, ondorio positiborik izan al du afera honek?

Bai. Azken finean, eskatzen zuten bost urteko zigorra hain neurrigabea izanda, izugarrizko elkertasuna sorrarazi du. Hamaika mezu jaso ditugu Euskal Herritik, Espainiako eta Frantziako estatuetatik... Guk hemen “Bi urteko zigorra. Gaitz erdi!” pentsatzen genuen bitartean, Frantzian asaldaturik zeuden esanez nola tartakada batengatik hain zigor handia jartzen ahal zuten.

Beraz epaileak ongi gelditu dira Nafarroako Gobernuarekin esanez atentatua izan zela, eta baita gizartearekin ere, zuek kartzelatik libre utziz.

Horregatik esaten dugu epaiketa fartsa izan dela. Aldez aurretik bazekiten zer esan behar zuten epaian. Erabaki politikoa izan da.

Azkenean epaileak fiskalaren argudio guztiak onartu dituela salatu duzue.

Bai. Ekintzaren egiletza ontzat eman zuten. Jurisdikzioa Espainiako Estatuarena zela ere bai, nahiz eta Frantziako Estatuan gertatu.

Atentatua izan zela esan dute, juridikoki zilegi ez den bereizketa bat eginez: tarta bat botatzea ez da atentatua, baina aurpegian igurtzea bai. Modu berean ontzat eman du Okzitaniar bertako polizeiek ikerketarik egin ez zuten argudioa eta, bukatzeko, debekuaren akatsa bete-betean ez, baina aringarri gisa onartu zuten. Hori zuzenbide progresistan erabiltzen den kontzeptua da: zuk ez badakizu egiten ari zaren hori toki horretan lege-haustea dela, ezin zaituzte horregatik zigortu. Alkohol botila bat debekatua dagoen herrialde batera eramatea edo modu batez edo beste janztea, adibidez. Guk hori ere aldarrikatu genuen pentsatzen genuelako Frantziako Estatuan tartakada ez zela delitua, falta baidarik. Hau ere ez zuten bere horretan onartu, baina bai aringarri gisa.

Eta zergatik esan zenuten epaiketaren bukaerazuek ez zinetela egon Okzitaniako Tolosan egun horretan?

Egiletza zalantzan jarri genuen, ez gu izan ez ginelako, baizik eta instrukzioan haiek zeuzkaten frogak oso-oso motelak zirelako. Ekintzaren unean foruzainek ez zuten ikerketarik ez identifikaziorik egin. Gero epaiketaren deklaratu zuten bideoa ikusi zutela Mugituren webgunean, handik jaitsi zutela eta ez dela beharrezkoa identifikazio lanik egitea mundu guztiak badakielako Julio eta Gorka nortzuk diren eta Mikel Alvarez ere ezagutzen zutelako. Hori tabernan esatea oso ongi dago, baina ez epaiketaren batean, batez ere halako kartzela zigorrak eskatzen ari direnean. Gure abokatua ikaratu egin zen azken astean gure lekuko pila bat eta txosten juridikoak atzera bota zituztelako, eta egiletzaren afera beraien puntu ahulena zela ikusita, erabaki genuen ildo berri hori zabaltzea, nahiz eta oso ados ez izan, desobedientziaren ikuspuntutik hori ez delako oso eredugarria. Haiek ez zuten bere lana egin eta guk ez genien dena eginga eman

nahi. Mugituk beti aldarrikatu du ekintza egin genuela eta horrela esan dugu beti toki guztietan, baina Mugituren izenean, ez gure izen propioekin. Hori baliatu genuen azken bide hori zabaltzeko.

Gero eta gehiago ari dira desobedientzia zigortzen?

Orain arte euskal independentismoaren aurkako zigor kodea egin dute eta orain, aldiz, M-15 mugimenduaren inguruan sortu diren borroka molde guztien aurka ari dira. Kongresua inguratzea, pankartak eramatea, Espainiako ikurri iraina egitea... *Ad hoc* egindako lege berriak dira orain ateratzen ari direnak.

Eta hemendik aurrera zer egiteko asmoa duzue?

Ekintza berriak prestatzen ari gara. Zaila da ideia berritzaile, eraginkor eta dibertigarriak aurkitzea. Buru arina behar da halakoak pentsatzeko. Bi urtetan ezin dugu kartzela zigorrik ekar lezakeen lege-hausterik egin.

Buru arina eta abokatu bat aldamenean?

Bai, baina abokatuak beti esango dizu ez egiteko. Okzitaniako Tolosara joan ginen Iparraldeko lagunekin hitz eginda bakarrik, abokatuei ezer galdetu gabe. Errepresio itzela izango dela pentsatzen baduzu ez duzu inoiz ezer egingo.

Guk beldur handia dugu. Jendea oso ikararuta dago. Euskal Herrian izugarritzko errepresioa dago, errepresio zuzena eta ekonomikoa. Isun bat eta beste bat jartzen dute eta jendea itota dago. Lehen kaudimengabe bazinen libratzen zinen bederen, baina orain ez. Dirurik ez baduzu asteburuetan kartzelara joan edo antzeko zigorrak bete beharko dituzu. Ez du ematen, baina 80ko hamarkadan baino dezente okerrago gaude orain. ■





blogetan!

BLOG IZARREN BILA



Proposatu zeurea edo gehien atsegin duzun bloga!

Antolatzailea



www.blogetan.com

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekoa | ARGIA kolaboratzeko aukera

Laguntzailea



MIGUEL ANGEL CABODEVILLA

«Ekuadorreko oihaneko herrien amaiera oso gertu egon liteke»

Ekuadorren hiru hamarkadaz bizi eta gero, Amazoniako herrietan aditua da Miguel Angel Cabodevilla kaputxino nafarra. Hogei liburu baino gehiago idatzi ditu Ekuadorreko indigenez, baina azken lana, *Una tragedia ocultada*, polemika iturri bihurtu da.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

EREMU BABESTUA IZAN ARREN, Yasuni oihan petrolio ustiatzen hasteko eztabaida Ekuadorreko Batzar Nazionalera iritsi zen apirilean eta Cabodevillak orduantxe aurkeztu zuen liburua, Quitoko epaile bat argitalpena debekatzen saiatu bazen ere. Urrian, ustiatzea baimendu du Batzarrak eta horrek oihan itxian bizi diren Taromenane herria desageratzeko arriskua ekar dezakeela uste du misiolariak. Politikarien zinismoa salatu eta Taromenane eta Huaorani herrien arteko hilketak interesagatik baimentzen dituztela iradoki du.

Zalaparta handia eragin du zure liburuak; ziu-rrenera ez zenuen halakorik espero.

Ez, ia 30 urte egin ditut Ekuadorren [Iruñeko San Antonio elizara destinatu berri dute], eta horrelako erreakzio bat dagoen lehenbiziko aldia da. Epailearen erabakia, liburua kaleratzea galarazi nahi izatea, neurritz kanpokoia izan zen. Zalapartak Ekuadorren egun bizi den egoerarekin dauka zerikusia: lehenengo aldia da gizartearen eta Gobernuaren artean tentsio moduko bat sentitzen dena. Gobernuak ustiatuko ez zuela bazioen ere, Yasuniko lur zati batean sartzeko erabakia hartu du eta gizartearen erantzuna nahiko handia izan da.

Liburua debekatzeko saiakera aurkezpenaren egun berean etorri zen, eta gau horretan bertan Rafael Correa presidentea zurekin harremanetan jarri zen.

Aspaldian ez zen Ekuadorren libururik debekatzeko, eta Gizarte Zientzien Latinoamerikako Fakultatean aurkezten ari ginen, Ekuadorreko inteligentziaren bihotzean. Liburuaren aurkezpena jende andana bildu zen, eta

liburua galarazteko neurria gehiegizkoa zela ulertu zuten denek segituan. Gainera, Ekuadorreko Gobernuak atera duen Komunikazio Legearekin [Mozalaren Legea izenez ezaguna] piztuta zegoen suari abar gehiago botatzea suposatzen zuen. Hortaz, Gobernuak ez zuen misiolari batekin arazorik izan nahi eta prentsa-ohar bat karrikaratu zuen, liburuaren debekuan euren erantzukizuna zurituz. Are gehiago, gau horretan bertan presidenteak eta ministroen batek telefonoz deitu zidaten, debekua neurri politiko bat zela ukatuz, eta erabaki judiziala zela ziurtatuz, independentea. Epailearen erabakia hanka-sartze ederra iruditzen zitzaiola aitortu zidan Correak. Oso


jatorra izan zen nirekin, eta Yasuniri buruz nuen iritzia azken muturreraino defendatzeko eskatu zidan. Nik, horrela eginen nuela erantzun nion.

Polemikaren ondoren, Iruñera itzuli beharrean izan zara, anonimotasunera, apaiz lanetara. Urrutitik, zein sentipen duzu Ekuadorren bizi izandakoez?

Momentu honetan Iruñera itzuli behar izateak min egin dit. Yasunin arazo serio bat dagoelako eta liburu honek sarraskiak gertatzen diren zonaldeko huaorani eta misiolarien arteko harremanak nahastu dituelako. Ur-putzu batera harria bota izan banu bezala da, eta harria bota eta berehala banoa, nik jaurtitako harrikadak han ditudan kideei eragingo diela jakin arren. Bai, gogorra egin zitzaidan itzulera, baina hementxe egon beharra daukat.

Gobernuak Yasuniko gune babestuko eremuetan petrolioaren ustiapenari heltzea erabaki du eta Ekuadorren mundu orok "kontaktatu gabe-

“Altxorren maparen erdian bizi dira eta Gobernu honek, eta aurrekoek, herritarrei sinetsarazi die petrolioarekin pobreziaren arazo guztiak konpondu daitezkeela”



Liburuaren argitaratzea galaraztearekin Gobernuak zerikusirik ez zuela esateko, Rafael Correa presidenteak berak deitu zion Cabodevillari eta Yasuni oihanaz zuen iritzia azken muturreraino defendatzeko adierazi zion. Horrela egingo zuela erantzun zion kaputxinoak.

ko herriez” solas egiten du. Baina oraindik ez da isolatuta bizi diren indigena horien egoeraz ikerketa sakonik egin.

Gizarte guztiek dituzte horrelako kontraesanak. Kontakturik gabeko herrien gaia aspal-ditik dator. Alejandro Labaka apezpikua, kasu, 1987an hil zuten, Ines Arango mojar-ekin batera, talde horietako batek lantzekin erasota. 25 urtetan misiolariak bakarrik egin dugu herri hauen jarraipen sistematikoa. Finean, bi arrazoi nagusi daude: lehenik eta behin, arrazakeria Ekuadorreko gizartean errotuta dago eta oihaneke indigenak oso gaizki ikusiak dira. Bestetik, ezkutaturiko taldeak altxorraren maparen erdian bizi dira: petrolioaren duen oihane batean bizi dira eta Gobernu honek, eta aurrekoek ere bai, herritarrei sinetsarazi die petrolioarekin pobrezia-aren arazo guztiak konpondu daitezkeela. Ondorioz, oihan barruko indigenek garapenari uko egingen liokete. Baina hori ez da horrela. 60ko hamarkadaren amaiera aldera hasi ziren petrolioaren ustiatzen, 50 urte iragan dira orduz geroztik, eta ez gara txirotasunetik atera, edo ez gara gobernuak agintzen dituzten aberastasun mailetara iritsi. Halarik ere, argudio honek jendea konbentzitzen du. Pertsona bakar batzuek oihanaren zati handi bat euren menpe izatea bidegabetzat jotzen dute, oihana ekuadortar guztiena delakoan, baina Ekuadorreko jendeak ez ditu nazioarteko legeak ezagutzen: jatorriz bertakoa den

“Ez da kanpoko guztiari uko egiten diotenik, baizik eta euren lurrak defendatu nahi dituztela. Eta aski ongi dakite heriotza kanpotik heldu zaiela”

talde batek, Estatua sortu baino lehenagotik bertan bizi den talde batek, lurralde horien gaineko eskubidea dauka.

Duela zenbait urte Rafael Correaren nazioarteko laguntza ekonomikoa eskatu zuen Yasuni ez ustiatzeko.


Bai, baina beraiek oihanaren kontserbazioari eman zioten indarra, atal ekologikoari. Ingu-ru hori petrolioaren eraginetik kanpo mantentzearen dirua eskatzen zuten. Niri, per-sonalki, ekologia oso garrantzitsua iruditzen zait, baina are garrantzitsuagoak zaizkit giza-kien komunitateak. Indigena ezkutuak ez dira Ekuadorren bakarrik bizi, Perun ere badira, Brasilen, Paraguain, eta Gizateriaren Ondare izendatu beharko lituzkete. Erabat originalak diren neu-rrian, han milaka urtez bizi izanagatik, mundu guztiak defen-datu beharko lituzke. Correaren nazioarteari laguntza eskatu zionean, giza-taldee-ri ez zien jaramon handirik egin. Jendea oso erratua dago oihanaren ikuspegiarekin: Yasuni ez da

oihan birjina, gizakiaren moldeetara eginiko eremua baizik, ereindako basoa. Indigenek beti oihanean esku hartu dutela erakusten dizute, eta *chonta* hauek han landatu zituztela esaten dizute, palmera horiek ere beraiek jarri zituztela, zedro horren atzean aitonen baratzea zegoela... Kanpotik ikusita oihana bat-batean sortutako gunea da, zuhaitzez josia, ordenarik gabekoa. Indigenen ikuspuntuari

Petrolio vs. 300 indigena

ISOLATURIK bizi diren herri indigenak 1987an eman ziren ezagutzera Ekuadorren, Tagaeri taldeko lantzek Alejandro Labaka apezpiku euskalduna eta Ines Arango moja kolonbiarra zulatu zituztenean. Misiolariak talde honekin harremanetan hasi nahi zuten, petrolio eta zura konpainiek euren desagertze isila eragin behar baitzuten. Ordura arte, Estatuarentzat indigena taldeok ez ziren sikiera existitzen. 1998an, Jamil Mahuaden Gobernuak Yasuniko zonalde hori babestea erabaki zuen, Lurralde Ukiezin izendatuz. Quitoko Gobernuak zonaldea petrolio dorreetatik urrun mantentzeko deliberoa hartu zuen. 2013an,

Rafael Correa presidente zela, Yasuni-ITT ekimena onartu zen: Yasuni ez ustiatzeko konpromisoari eutsiko zioen Gobernuak, baldin eta jasoko ez zituen etekinen erdia (350 milioi dolar urtean) nazioarteko komunitateak ordaintzen bazion. Baina Yasuni-ITT indarrean egon den bost urteetan ez dute esperotako dirua lortu eta Correak, bere hitza janean eta gizartearen protestei muzin eginez, zonaldea ustiatzeko aukera jarri zuen mahai gainean. Urrian, ustiatzea baimendu du Batzarrak. Kalkulatzen da Yasuniko oihanean 300 indigena inguru bizi direla kanpoko gizartetik isolatuta.



erreparatuko bagenio, lurralde horien jabe-goa norena den hobeto ulertuko genuke.

Ezkutatuko indigenak Mendebaldeko zibilizazioaren aurka gogor borrokatzen diren izaki gisa aurkezteak dizkigute, modu erromantikoa. Ados al zaude ikuspuntu horrekin?

Ekuadorreko kasuan ez da hala. Jatorriz, enbor bereko taldeak dira, eta bizirik irautea lortu dute lekuri ezkutuenean zegoen oihan puska batean bizitzera ohitu direlako, elikaduraren aldetik pobreena zen zonalde batean, ibai handietatik urrun, arrantza gutxiarekin, lur emankorrik gabe, gurutzatzeko latzak diren mendi muinoetan. Horregatik libratu dira, inork desio ez zuen zonalde batean bizi izan direlako. Herri hauek euren geneetan, euren tradizio kulturean idatzita dutenez, bertan bizi izan direlako egin dute aurrera. Eta horrexegatik, inbaditu dituztenean, euren lurraldeak sutsuki defendatu dituzte. Hone-taz landara, kuriositate handiko herriak dira. Mendez mende ingurumarian dituzten jendeak zelatatu dituzte, eta lan-tresnak ebatsi dizkiete, hala nola aihotzak, aizkorak edo aluminiozko pertzak, euren zeramika oso hauskorra eta arina baita. Beste baratzetatik eza-gutzen ez dituzten landare asko hartu dituzte, eta beraienetan landatu. Ondorioz, ez da kan-

poko guztiari uko egiten diotenik, baizik eta euren lurraldeak defendatu nahi dituztela. Eta aski ongi dakite heriotza kanpotik heldu zaiela, horregatik ibiltzen dira kontu handiz.

Eta nola aurreikusten duzu euren egungo egoera, beren lurraldeak gero eta murriztagoak izanik?

Nire irudikoz, egoera oso larria da. Bat-batean oihana oso txikia geratu zaie. Hozkada handiak emanez euren bizilekuak lapurtzen ari zaizkie, petrolio bloke bakoitzak 200.000 hektarea baititu. Lurraldeak asko mugatu dizkiete, eta ez taromenaneenak soilik, baita huaoranie-



Galparsoro
OKINDEGIA

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

na ere. Eta noski, lehen oihaneko zati zabal bat partekatzen zuten herriek askoz murriztagoa den lurraldeagatik borrokatu behar dute orain. Hor hasten dira arazoak.

Liburuan aurtengo martxoan taromenane eta huaoraniak arteko hilketen kronika egiten da, aurreikusitako heriotza baten kronika bailitzan. Estatuak zer egin zezakeen hilketa hauek galarazteko?

Tragedia honek bi pasarte ditu. Lehenengoan, kontakturik gabeko indigena talde batek [taromenaneek] euren muga lerroan bizi den huaorani bikote bat akabatu zuen, gizona euren lurraldeetan sartzen zelako eta bere presen-
tziak gogaitu egiten zituelako. Bigarren pasarte-
tean mendekua jazo zen: Orellanako Coca
hirian erositako karabinak zeramatzatela, taro-
menane indigenen klaneko hamarka partaide
akabatu zituzten. Huaoraniak gehiago dira, su-
armak dituzte eta boteretsuagoak dira. Guk
Gobernuari huaoraniarekin negoziatzeko eskatu
genion, mendekua etorriko zela bagenekielako
eta Gobernuaren betebeharrak zelako negozia-
tzea. Legeak hala agintzen du, Estatuak ezku-
tuko herriak defendatu behar dituela, eta ingu-
ruko gizarte zibila ere bai. Plangintzak huts
egin zuen, eta taromenaneek izaera juridikorik
ez dutenez, Estatuak da hilketa horien ardura-
duna. Nik Gobernuari gomendatu nion, men-
dekurik egon ez zedin, erasotako familia huaor-
aniari kalte-ordainak emateko, baina
Ekuadorreko legeak alegiazko egoera hori
jasotzen ez zuela arrazoitu zidaten, eta 25 egun
geroago, huaoraniak mendekua egiteko esku-
bide osoa zutela sinetsirik, taromenaneen
etxola aurkitu eta sarraskia jazo zen.

**Logika horren arabera, Estatuak ez badu ezer egiten, hurrengo urratsa taromenaneen men-
dekua izanen da...**

Horixe bera. Kontua da ez dakigula zenbat
gelditzen diren. Hilketa ikaragarria izan zen,
ia-ia klaneko kide guztiak balez josi zituzten.

Ez dakit zein indar duten berriz bildu eta era-
soa burutu ahal izateko, lapurtu zizkieten bi
neskatoak berreskuratzeko. Baina hori da
ezbairik gabe indarkeriaren dinamika, errepik-
atu eta ugaltu egiten dela. Eta erasoak egin
zuten huaoraniak ez dute zigorrak jaso, Esta-
tuak ez du ezer egin, eta bere ekintza zilegi
dela uste dute. Are gehiago, taromenaneen
lurraldera itzuli dira, bizirik atera zirenei aka-
bera emateko, lortu ez badute ere. Mendeku-
rik ez izateko modurik eraginkorrena arerio
guztiak hiltzea da, hori aski ongi dakite.

Taromenaneak desagertzeko zorian ote daude?

Klan hori bai, ia-ia erabat deuseztatu dute.
30-40 kideko taldeetan bizi dira, eta taldeak
independenteak dira, maiz ez dute euren
artean harremanik. Ez dut uste klan horretatik
bizirik atera direnak klan berri bat sortze-
ko gai izanen direnik. Emakume eta haur
gehienak hil ziren, gizon bakar batzuk gelditu
ziren bizirik. Zein irtenbide dute? Beste klan
batean lekua aurkitu beharko dute, baina
beraizentzat oso zaila da hori, klanak sarritan
aurkariak baitira. Hurbilketa saiakeran hil
ditzakete. Bizirik iraun dutenen egoera kriti-
koa eta dramatikoa dela pentsatzen dut.

**Azken gertakizunak kontuan hartuta, herri horie-
kin kontaktatzeko tenorea iritsi dela deritzozu?**

Nazioarteko legeak hori debekatzen dute,
orain babes-lana egin behar da. Euren lurral-
dearen mugetan bizi duten indarkeria arindu
behar zaie. Petrolio eta ezkutatutako
herrien biziraupena ez zaizkit bateraezinak
iruditzen. Ekuadorrek bere legeak bete
beharko lituzke, besterik gabe. Nozitzen
duten indarkeria kenduko baliote, talde
hauek harremanak ugalduko lituzkete. Ini-
ziationa euren hartu beharko
lukete. Alabaina, egoerak bere
horretan jarraitzen badu, ezku-
tatutako herrien amaiera oso
gertu dagoela esanen nuke. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Norahi zoazela. Norahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EDERTASUNA

Jarrera kontua da dena

Gure gorputzen gaineko presio sozialari irri batekin iskin egiteko proposamena luzatu digu Gracie Hagen argazkilariaren *Ilusions of the Body* proiektuak.

| AXIER LOPEZ |

“Dena itxura, dena gezurra da. Ederra bezain faltsua” oihukatzen dute Leihotikan taldekoek. Willis Drummondoko lagunek ideia berean sakondu dute “heroiak mamuak dira, ez baduzu sinesten, ez dira existitzen... esan nun dauden!” abestuz. Gaur egun munduari begiratzeko eta berau interpretatzeko ezinbestekoak dira irudiak. Hurkoarekin harremantzeko moduak aldatzeko ere gai dira. Janzten dugunaren edota gerri bueltaren tamainaren arabera, aurreiritziak bizi gaitu. Eta itxura faltsuen liga honetan emakumezkoen taldeak kanpoko zelaian jokatzen du beti, bi jokalaria gutxiagorekin eta arerioak arbitroa erosita. Izan ere, emakumeek txikitatik jasaten duten itxurarekiko kezka, beti polit, beti eder egon beharraren presioa demasa da.

Gracie Hagen argazkilariak itxura eta tankera anitzeko pertsonak, gehienbat emakumeak, kameraren objektiboaren aurrean jarri ditu biluzik, *Ilusions of the Body* ekimenean. Enkoadrea eta ingurua aldatu gabe, bi argazki egin dizkie: ezkerrean argazki sesioetan ohikoak diren poseak erabiliz eta eskuinean guztiz bestelako jarrera batean. Gorputzak irudikatu behar duenari eta begiratzeko dauzkagun arauetara buruz hausnartzeko iradoki du kontrastea, hain zuzen.

Publizitatearen menpeko komunikabideek, gehien-goak alegia, “jendearen alderdirik *ederrena* azaleratu ohi dute eta gu irudi haiekin konparatzen gara”, dio Hagenek proiektuaren aurkezpenean. Urriak dira posarik edo Photoshopik gabeko irudiak hedabide masiboetan. Beti zuzen, makillaje egokiaz apainduta eta *Profound* irribarraz. Argazkilariak webgunean dioen gisan, “serie honekin gorpuzkera, etnia eta genero anitzak erakutsi nahi izan ditut, ‘itxura normala’ existitzen ez dela azalarazteko, tamaina eta forma anitzekoak garela oroitarazteko”. Musikara bueltatuz, Koma taldeko lagunek berdina esan ziguten zuzenago, *nafarrago* nahi bada: “Teleberriko aurkezlea, Rocio ko Birgina, multinazionaleko zuzendariak, irratiko izar diruduna... imajinatu itzazu kakai-nean”.


Egilearen proiektu, argazki eta bideo gehiago dituzue argazkilariaren graciehagen.com webgunean. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak





DANI BLANCO

**Mikel
Zurbano**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Soldatak jomugan

BARNE DEBALUATZEAREN politikarekin aurrera egin dezan, 2012ko lan merkatuko erreforman sakontzeko aholkua eman berri dio OCDE (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) erakundeak Espainiako Gobernuari. Lehengo lepotik burua, beraz. OCDEk bezala Alemaniako Gobernuak eta troikak agindutako austeritate politiken ardatz honen itxurazko helburua ekonomiak eta enpresek lehiakortasuna irabaztea da eta horren bidez enplegua sortzea. Bide erratua inondik ere.

2012ko lan erreformak lan harremanak jabeagoaren menpe jarri ditu erabat, negoziatio kolektiboa ahuldu du eta kaleratzeko askatasun osoa eta soldata apalagoak ahalbidetu ditu. Jakina da atzeraldian dagoen ekonomiarentzat kaleratzeak erraztearen ondorio nagusia kaleratzeak ugaritzea dena: azken bi urtean milioi bat enplegu baino gehiago galdu dira estatuan. Langabezia handitu da eta behin behineko kontratuak ere, egungo kontratu berrien %90 izateraino. Ekonomiaren motelaldia areagotu egin du horrek, itxarondako lehiakortasunaren hobekuntza zapuztuta. Nolanahi ere, lan erreforma horrek helburu bat bete du bederen: soldata errealek %5-%10 jaitsi dira bi urtean Espainiako Estatuan. Argudio ofizialak dio honek kostuak apaldu eta prezioen bidezko lehia hobetzea dakarrela.

Troikak eta OCDEk bultzatzen duten soldaten jaitsieraren bideak ez du kanpo lehian onura handirik ekarri orain arte. Ostera, barne merkatua uzkurdu egin du. Espainiako Estatuko produktuaren %22 baizik ez da kanpoko merkatuetara bideratzen, gainerakoa barne merkatuan trukatzeko da

Baina, soldata apalagoak izateak ez du halaberharrez produktuak kanpoko merkatuan lehiakoragoak izatea esan nahi. Agintari ekonomiko eta politiko ofizialen esanetan Euskal Herriko zein Espainiako Estatuko arazoa lan merkatu zurrinak eta

sindikatuaren indarrak bideratutako soldaten igoera bizkorra zen. Haatik, Espainiako CESe azken txostenak dioten bezala 1986tik aurrera unitateko lan kostu erreala jaitsi egin da Espainiako Estatuan, aldian aldiko igoerak egon diren arren. Orobat, produktu osoarekiko langileen ordainketak %3 jaitsi dira 2000 ondoren eta kopuru horrek batik bat mozkinen tarte gizendu du. Gainera, mozkinen gehikuntza ez da inbertsio produktibora bideratu baizik eta enpresen zorra ordaintzera eta, batez ere, finantza arloko eragiketara.

Are gehiago, barne debalutzeak ekartzen dituen soldaten eta unitateko lan kostu errealek jaitsierak ez ditu hemengo produktuen prezioak jaisten eta lehiakoragoak egiten atzerriko merkatuetan. Aldiz, estatuko inflazioa eurogunekoa baino %1,5 garaiagoa da batez beste. Horrek esportaziorako produktuak garestitu egiten ditu eta kanpoko merkatuetan bertako produktuak saltzea zailagoa da. Horregatik, azken urteetan Espainiako Estatuko kanpo balantzan egondako hobekuntza esportazioen igoeragatik baino gehiago inportazioen jaitsieragatik suertatu da, izan ere, herritarren eros ahalmenaren murrizketak bertako zein kanpoko produktuen kontsumoa apaldu du.

Beraz, Troikak eta OCDEk bultzatzen duten soldaten jaitsieraren bideak ez du kanpo lehian onura handirik ekarri orain arte. Ostera, barne merkatua uzkurdu egin du. Espainiako Estatuko produktuaren %22 baizik ez da kanpoko merkatuetara bideratzen, gainerakoa barne merkatuan trukatzeko da. Etxeko kontsumoak produktuaren osaketan duen garrantzia %45 da. Barne debalutzearen estrategiak herritarren eros-ahalmenaren galera nabarmena ekarri du eta honek kontsumoarena: INEren arabera etxe ekonomietako batz besteko errenta %8,5 murriztu da azken bi urtetan. Beraz, OCDEk indartu nahi duen lan merkatua malgutzeko politika ekonomia pizteko oztopo nagusietako bat da. Azken buruan, esportazioak handitzeko asmoz soldatak apaltzeko estrategia sozialki bidegabea ez ezik ekonomiki antzua da. ■





ERREGIMENAK ASPALDI EGIN ZUEN DIAGNOSIA:

KENDU EGIN BEHAR ZAIO
EZKER ABERTZALEARI
KALEAREN NAGUSITASUNA

ETA ERAKUNDEEK MANIFAK ANTOLATZEARI EGIN ZIOTEN

GIZARTEA MINTZATU DA
ETA AGINDUA EMAN DIGU

ARDANTZA ©

alibi, perfektua sistemari IRAUNARAZTEKO:

erakundeek
KONTSIGNA
EMAN

"GIZARTEA"
MOBILIZARAZI
PRENTSA ADITUAK - SOS PUBLIKOAK

KONTSIGNA
SANTIFIKATUA!

MANIFA BATERATUAK BURUTZEKO BALDINTZA BERA BAINA

ETAREN BIOLENTZIA GABE
GU GARA LEHENAK IZANEN
PRESOEN ALDE ATERATZEKO

ARZALLUZ ©

ETA ETA GELDITU EGIN ZEN.
ORDEN ERAKUNDEAK EZ ZIREN
JAUREGIETATIK ATERA

KARRIKAN EZ DA DEUS LORTZEN,
FRUSTRAZIOA IZAN EZIK

ORTUZAR ©

ETA GAINERA ENTZUNGOR EGIN ZIOTEN
KOLOSALTASUNARI:

ETXEAN EGON DIRENENTZAKO
ERE GOBERNATZEN DUGU

URKULLU ©
(GERORA SAIZ
DE STAMARIA ©)

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Gabonetako topikoka zopa

TOPIKOA DA Gabonak, topikoz jositako festak direla aipatzea. Ez da txarra, ordea, topikoei tartea uztea, bizitzeko mesedegarri badira. Gabonetako topikoen sorkuntzan bi tradizio handi elkartzen dira. Kosmikoa, Harri Aroko sozietateetan sortua, egunak laburtuz doazela konturatuta, eguzkiari berriro argiaren itzulia eskatzen diona. Bestea, aro kristauko IV. mendean sortua, urtearen egutegi liturgikoa egokitzean, argi eta itxaropen hori Jesukristorekin identifikatu eta bere jaiotza solstizioaren egunean kokatu zuena. Topikoa ere bada kristautasunaren identifikazio hau makurtzat ematea. Bestela ere begira liteke, etxea egokirotu pintatu eta berrituta utzi duenaren miresmenetik.

Eguberrietako beste topikoa da ekartzen duten tristeziarena. Gabonetan mahai inguruko hutsuneak agerikoak dira. Bizitzaren gurpilaren gogorapena besterik ez da hori. Luzera, tristura handiagoak ekartzen ditu gurpil horren errealtateari ez begiratu nahi izateak.

Festa erabat komertzialak direla topiko errepikatua da. Urteko beste sasoi guztiak, haatik, horrelakoak dira egun. Samurtasuna eta zintzotasuna egun batzuetarako dekretuz ezartzen zaizkigula purrustatzea ere sarri entzuten dugu. Ez legoke gaizki horrela izatea eta ikerkuntza zientifikoak formulari erre-

paratzea urte osorako luzatzerik ote legokeen aztertzeko.

Topiko berriak edo berrituak sortzen ari gara eten-gabe. Euskaldunon artean deigarria izan da Olentzeroen azken urteotako bilakaera supersonikoa. Mutil zahar arlote pipazale mozkor eta sarramuskatzaile izatetik aitona bizar zuri txukun, adeitsu, opari banatzaile eta *waltdisney*tarra izatera. Azken orduko ekarpenak, genero berdintasun azalekoaren izenean, emaztea edo laguna kokatu dio ondoan, Mari Domingi, zarpailatik dotorerara ekarri ondoren. Gure artean topikoa denez, hamaika txiri-buelta dialektiko plazaratu dira honen inguruan. Niri ez zait gustatu bihurketa osoa. Egungo inozokeria sozial garailearen eraginez (haurren

Egungo inozokeria sozial garailearen eraginez tradizio kristauak zuen ederrena ahazten da

arloan garaile baino areago *agintzaile*) tradizio kristauak zuen ederrena ahazten delako. Argia eta itxaropena ez direla etorriko boteretsu eta euren jarraitzaile kaka-jaleengandik, Olentzero eta Mari Domingi bezalako pobre eta baztertutakoaren eskutik baizik. Egunotako topiko berrikuntzan ia izenak besterik ez diegu mantendu, artalde otzanera ekarri ditugu euren irudi eta izaera.

Erne, abertzale jendea, topiko zopa honen sukaldari gehienak: laster Olentzero eta Mari Domingi hauek PPri emango diote botoa. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Txik eta txok

NEOLIBERALISMOA jendearen funtsezko askatasunarekin ez dator bat. Gehiengoa biluzten duen egiturak boterean irauteko manifestatzeko, oldartzeko eta egoerak salatze eskubideen murrizketa eskatzen du derrigor hondarrean diktadoreak jartzen dituela gobernatzen. Estatu kolperik gabe aldion, hauteskundeetarik aterako baita burnizko ahurraz manatuko gaituen gizon-hautatua.

Begiak ixten baldin baditugu aitzinean ditugun hilabeteak gogorak, larrutzaileak, katastrofikoak itxuratzen ditugu. Aukerarik ez dugu, aterabiderik are gutxiago: 1.000 esker Pavlov eta elektrotxo ke ongi-etorriak.

Salbatuko diren bakarrak gure artean beldurra, ahalkea eta ibai orokorraren isuriarekin ez doazenenganako mespretxua hedatzen dutenak dirate. Jomugan daude Lampedusan hilotzu arrotzak, abortatzeko dretxoak kentzen zaien emazteak, zafratzen diren homosexualak, eriak, langabetuak...

Dostoievskiren idiota izan behar litza-teke 2014 urtean zorionaren dasta, bizi-tza eta pentsamendua aldatzeko gogoia, irria ezpainetan eta bakea bihotzetan ukanen dugula irudikatze. Edo Bruce Springsteen.

Dream baby dream. ■





Amets Martinez Moreno

♦ TANTAZ TANTA EKIMENeko KIDEA

Ezinbesteko tantak

TANTA BAT bada zerbait, bere baitan itsaso oso baten sekretua gordetzen baitu. Hori da labur esanda Tantaz tanta kanpainaren filosofiaren funtsa. Urteak daramatragu jokaleku berri baten aurrean gaudela entzuten, urteak aukera berriak zabaldu zaizkigula aditzen. Entzun eta aditzeaz gain, gutako bakoitzak zer esan eta zer egin handia dugula pentsatzen dugunok osatzen dugu ekimen hau. “Gauzak aldatu behar dira” esatetik, “gauzak aldatzera goaz” deritzogunak jarri gara martxan, eta tantaz tanta filosofia horrekin busti nahi ditugu Euskal Herriko bazter guztiak.

Preso eta iheslarien eskubideen eremua izan da betidanik estatuen aldetik erabilitako gaia gatazkaren konponbideari ez helitzeko, herri osoa gatazkan iraunarazteko. Egoera horretan bizi diren euskal herritarren oinarritzko eskubideak urratzea, dispersioa bezalako neurri krudela mantentzea edota larriki gaixorik dauden presoak espetxean mantentzeak, mendekuaren logikari soilik erantzuten dio, galtzaile eta garaituaren diskurtsoari. Bitartean, gure herrian, gatazkaren konponbideari edota gatazkaren ondorioei irteera bilatzeko formula eta dinamikak etengabeak dira. Espetxean edota deserrian ematen diren giza eskubideen urraketak ez direlako soilik horiek bizi dituztenen arazo. Herri osoak izan behar du oinarritzko giza eskubide horien defendatzailerik, etorkizuna oinarri horien baitan eraiki nahi badugu behintzat.

Beraz, tanta bakoitzak asko dauka egiteko. Bakoitzak bere esparrutik askoz ere gusturago lan egiten dugula badakigu. Tanta bakoitzak duen potentzialtasu-

nean sinetsi behar dugu, kultur arlotik, hezkuntzatik edota kirol esparrutik preso eta iheslarien eskubideen defentsan antola ditzakegun ekimen andana daude. Zein da gakoa? Irudimena, lana eta gogoa. Etsipenean murgildu nahi gaituztenen aurkako formula egokiagorik ez dago. Bilboko itsasoak guzti honen hasierako erakusleho izan behar du.

Urtarrilaren 11n, herri honen borondatea islatuko duen itsaso ahaztezina burutuko dugu. Tanta guzti horien erakustaldi historikoa, gure herriak inoiz ezagutu duen espazioaren okupaziorik handiena antolatzen gabea izan da, eta egunean bertan

Irudimena, lana eta gogoa. Ez dago etsipenean murgildu nahi gaituztenen aurkako formula egokiagorik. Bilboko itsasoak guzti honen hasierako erakusleho izan behar du

ere, chunka bolondres urdin izango ditugu Bilboko kaleetan dena behar bezala irten dadin.

Bi olatu osatuko ditugu Udaltzeko plazatik eta La Casillatik, preso eta iheslarien senideak irekiko dituzten bi olatu erraldoi. Bi olatu horiek bat egitean helduko da mobilizazioaren puntu gorena, itsasoa sortzeko momentua. Ahaztezina izango den une hori ezinezkoa izango da gutako bakoitzaren tantarik gabe, zu ere behar beharrezkoa zara! ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Abortuaren legeari jarriak



DANI BLANCO

Imanol Lazkano

♦

Doinua: Ari naizela.

Gallardon jaunak –Franco bezala kristau zintzo ta apala– Varelarekin egin omen du konfesio jeneralak. Hark esatean abortatzea bekatu mortala dala legeak eta zigor zorrotzak jarri ditu berehala.

Zin dagizuet lege horrekin txunditu egin naizela nik uste nuen amatasuna nor bere aukera zela ta ez goitikan erabakia horrela edo honela emakumea bere soinen jabe ez balitz bezala.

Zentzu gabeko beste lege bat igorri zaigu debalde zerbaitegatik nahi dugu behingoz hoi menpetikan alde. Zeinen bizitzak maite dituzten beharko diegu galde abortuaren aurka daude ta ejertzitoaren alde. ■



Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Hamalaura ezkerro...

URTEAK ZINTZURRA luze badu ere, lepo egin diogu behintzat hamairugarren honi. Ez da gutxi. Lepoa egingo nuke, halere, buru hainbat aburu egongo dela gure artean joan berri zaigun urteaz, hamaika hamai-ka modutako dago-eta munduan. Eder edo itsusi, zein begik ikusi da kontua, eta bakoitzak jakingo du oro orotan eta usteak uste(l), denboraren sutan jar-tzean nolakoa izan den iazko eltzea.

Herriko gauzarik onenen artean etxeko iturri hotsa eta herriko ezkila aipatzen zuten gure zaharrek. Hiru-garrenik, erretorea aipatzen zuten, baina erretore ohia. Zenbaiten ustez, agintariekin eta urteekin ere gauza bera gertatzen da: onenak beti (eta betiko) joandakoak dira. Agintariak ez, aginduak aldatzen dira, eta bapo kostatzen ari zaigu oraintsu arte irine-tan ero ibilioi zahietan zuhur ibiltzen ikastea. Beha-riik ez da beharra baino irakasle hoberik...

Krisia ofizialki krisi denetik seigarren urtea izan dena, ez ur eta ez salda izango zen batzuentzat, eta zorionekoak halakoak, asko baitira, gurean eta auzoan, gosea bera jaki eta nekea bera ohatze dutela bizitzera (edo) kondenatuak.

Gure garaiko beste izurriteen-tzat (minbizia, alzheimerra...) sendabidea aurtun aurkitzeko eskaria egingo dio, bakoitzak bere jainkoari, otoitz egiten oraindik aspertu ez den jen-deak. Baina horiekin ere, larri ibili, gosearekin bezala baietz gertatu: ez du goseak inor hil-tzen munduan... ezin janak hil-tzen du jendea.

Famatu bakea famatzen den arren, izango da urte berrirako abo-katuaren emaztearen otoitza egingo duenik: Jauna, eze-tzari eta baietzari eman indarra! Horretan trebeak gara, oso, euskaldunok: autobidea ez bada trenbYdea, zaborra ez bada Igeldo, sesiorako sasoiko beti gu, sariak zauri eta zauriak sari bihurtzen bihurri bihur-tuak.

Aldian behingo negarra, ogia bezain beharra omen da, baina hemen negarra baino askoz ere aldian behingoagoa da irria. Hamalauaren atariraino iritsita, gogoan izan biharko uzten denak etzi ere hurbil duela, eta etziak are hurbilago etsia. Eginahalak egin, beti gelditzen da zer egin, baina ez genuke etsi behar geure esku dagoentxoak egin gabe, eginak eginkizunik ez baitu.

Mundua gogotik aldatzen ari da, eta alferrik da garai bateko ideologiaren mantrak errepikatzen ematea bizia, geldirik dagoen erlojuan ere egunean bietan ondo markatzen duela argudiatuz. Ukazioa legetzat hartuz, beti aurrera joatea hobe, edo horretan saia-tzea behintzat.

Txarrari barre eta onari arre egitea aski litzateke, baina ez dago erraza gaur egun txarra eta ona bereiz-ten. Nolanahi ere, egonean zer etorriko egon baino hobe da arian aritzeagatik tarteka hanka sartzea: oke-rra bada, ihitaia; zuzena bada, burruntzia; zabala bada, pala. Jo, dana dala!

Bihoaz, beraz, denboraren zuloan barrena, hamahirua eta iaz eginen damuak eta ez-eginen mamuak. Berria harroputz datorkigu, hama-lau halako, baina litekeena da bertara joan eta lau baino ez izatea agindutako intxaurrak. Nik neuk gauza bakarra eskatuko nioke hamalauri: ez dadila izan munduan alferrik diren gauzen zerrenda gizentzeko modukoa (hots, ez dadila egurra basoan, egunez ilargia, itsasoan euria eta gizonezkoen titiak bezain alferrikakoa izan).

Edo bai. Izan ere, nork daki aipatu berri ditugun horiek benetan alferrikakoak diren? Eta, batez ere, nork daki ba ote dago-en ezer beharrezkoagorik, ustez alferrikakoak diren gau-zak baino?

Kontuak kontu, hama-

l a u r a
ezkerro erdia

zazpi da beti, bai aurtun eta bai urte bete barru ere. ■



Antton Olariaga



argia 2014ko egutegia

- Zientzia eta teknologia
- Txistek
- Denboraren makina
- Bertsoak
- Ezagunek esanak
- Euskara "xuxenean"
- Mikro-ipuinak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari



BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai dagoeneko!

Eskaerak: ☎ 943 371 545 | denda@argia.com

«Kaliforniari eta bertako biztanleei buruzko lehenengo albisteak dira liburuko dokumentuak»

Duela lau urte ezustean harrapatu gintuen itzultzaile fierrak. Euskarara ekarriak zituen ordurako R.L. Stevenson, John Steinbeck, Patricia Highsmith, William Faulkner... eta, ezustean, saiakera lan bikaina oparitu zigun: *Far Westeko Euskal Herria*. Orain, berriz, haren jarraipen den –berez, haren lehen partea– lana ondu digu: *Kaliforniakoak* (Pamiela, 2013), aurreko hura bezain eder, landu eta gozagarri.

| JON ARIZKUN |

Argazkiak: Zaldi Ero

Irakasle zinen, baita itzultzaile ere, eta idazle eta saiakeragile zaitugu. *Far Westeko Euskal Herria* (Pamiela, 2009) argitaratu zenuen orain lau urte. Bestelako dimentsio bat eman zion lan horrek zuk ordu arte egindako lanari. Idazle egin zintuen lan hark. Bide hura berretsi baizik ez du egiten oraingo *Kaliforniakoak*...

Baina irakasle izaten jarraitzen dut, eta itzultzaile –*Kaliforniakoak* honetan ere, harako *Far Westeko Euskal Herria* bezala, itzulpen dira testuetako asko–, eta orain, gainera, idatzi ere egiten dut, bai. Hala ere, nik oso lotuta ikusten ditut hiru lanok. Irakasle izan naizenean ere hizkuntza idatzia izan da beti nire lan-arloa. Idazketa lantzen jardun dut ikasleekin –irakasleekin, egia esan, IRALEn egin baitut lan–, edo irakurketa... Hizkuntza idatziari lotua beti nire lana. Irakurketa lantzerakoan, esaterako, ahalegin handia egin dut beti testu interesgarriak, egokiak, ikasleei eskaintzen. Jakina, ikasleak ziren aurrean nituenak garai batean. Orain, aldiz, irakurleak ditut, baina ikasleei bezala, testu interesgarri eta onak aurkezten saiatu naiz bi liburuetan, bai *Far Westeko Euskal Herria*, bai *Kaliforniakoak* honetan.

Istorio-historia ederrak beti helburu.

Hautaketa-lana oso inportantea da. Liburu honen oinarrian dauden egunerokoak astunak dira askotan. Badoa, esate baterako, Ignacio Arteaga Pazifikoaren ipar-mendebaldean gora, eta bere egunerokoan idazten dituen oharrak itsasoari edo eguraldiari buruzko xehetasun aspergarriak dira: zenbateko longituda edo longituda iritsi diren, haizeak

nondik jotzen duen... Baina halako batean, badia batera iritsi, eta indioz betetako kanoak hurbiltzen zaizkie. Kantari datoz indioak, hildako hegazti baten lumatxoak sakabanatuz airean... Batzuetan 50 orriko eguneroko batean orri batek edo bik bakarrik dute interesa gaurko irakurlearentzat, eta horiek hautatzea lanaren atal funtsezkoa izan da.

Testu interesgarriok lotzen, bata besteari josten saiatu behar izan duzu. *Kaliforniakoak* ez da, besterik gabe, testu eder antologia huts.

Kalifornia Euskal Herria

“ASUN GARIKANOK xehetasunez kontatuko du liburu honetan euskaldunek penintsula hura eta handik gorako dena kristautzen, espainiartzen eta kolonizatzen egin zuten ahalegina. Monarkia espainola, indioen kontra, Kaliforniako itsasertza menperatzen ahalegindu zen hiru mendez. Haustura geologikoen moduko borrokak heldu ziren gero: Mexikoko independentzia gerrarekin, 1810-1820, Kalifornia Mexiko bihurtu zen, eta Mexikoren eta Estatu Batuen arteko gerrarekin, 1846-1848, gehiena Estatu Batuen barrutira pasatu zen (...) Liburu honek Far Westeko Euskal Herrira eramango gaituela barrundatzen dut, honen amaierako puntuak hura berrirakurtzea eskatuko baitu. Bi liburuek erakusten dute gizajendearen historia zer gogorra eta arraroa izan den (...) Kalifornia Euskal Herriaren probintzia bat dela erakusten da Asunen bi liburu hauetan, eta onartu beharrekoa da, are gehiago kontuan hartzen badugu Euskal Herria Estatu Batuen parte dela espalditik”.

Joseba Sarrionandiaren hitzak,
Kaliforniakoak liburuen atarikoan



Narrazioa osatu nahi izan dut, ez testu antologia. Testu antologia osatu banu, Historiaren bilakaerarik ez zatekeen ageriko. Testu horiek berak narrazio batean txertatuz gero, berriz, emaitza ezberdina da. Nire ustez, kasu honetan, kronologiak ezartzen duen ordena beharrezkoa zen. Baita gertaerak bere testuinguru historikoan kokatzea ere.

“Kasu honetan”, diozu. *Far Westeko Euskal Herrian ez?*

Beharbada, ez horrenbeste. Izan ere, kasu hartan garaia ezagunagoa zitzaigun, errealitatea ere bai. Denok dugu, gutxi edo asko, Mendebalde Urrun hartako euskal artzainaren berri. Kasu honetan, aldiz, zer dakigu XVI. edo XVII. mendeko Kaliforniaz?... Ezer gutxi. Nahitaezkoa zen, beraz, testuak garaian kokatzea eta era bateko edo besteko azalpenak ematea testuinguruaz.

Nevadan izan zinen 2007-2008 ikasturtean eta hainbat material bildu zenuen han izan zinen garaian, *Far Westeko Euskal Herria* ondu zenuelarik. Aldiz, hemen izan zaitugu irakasle lanean Kaliforniako testuok batzen jardun duzun aldian...

Far West egin nuenean, Renoko CBSn nintzen, Euskal Ikasketen Zentroan. Hango artxiiboak arakatu nituen, eta hango liburutegia. Renora joan nintzenean ere lan hura gogoan hartuta joan nintzen. Asmoa nuen. Bigarren lan honek bestelako sorrera du. Egonaldia egin genuen

“Liburuan, Kaliforniaren mapa nola perfilatzen eta zehazten den ikusten dugu hara joan ziren euskaldunen begietatik”

Kalifornian 2010ean, Stanforden, eta aparteko lan-asmorik ez banuen ere, laster asmatu nuen. Jo batera, jo bestera, eta euskal izenak agertzen zitzaizkigun bazterretan. Egia esan, lehenengo euskal izenak bigarren alabaren bidez sartu zitzaizkigun etxe barruraino. Bederatzi bat urte izango zituen orduan, eta eskolara hasi berri-tan, etxeko lana ekarri zuen. Gizarte zientziak zuen ikasgaia, eta Kaliforniako historiak ari ziren. Jarri alabaren ondoan, ikasketan laguntzen, eta hantxe, Kaliforniaren sorreran garrantzia izan zuten pertsona edo pertsonaia historikoak aipatzen zituzten. Lehenengoa, Hernan Cortes —eta horren aditzera banuen, jakina—, eta beste batzuen artean, Sebastian Vizcaino izeneko bat. “Hori euskalduna izango zen, bada!”, esan nuen neure artean. Ondoan, Fermin Lasuen agertzen zen. “Hara, beste bat!”. Alabak, zuzendu egin nahi izan ninduen: “Ez da Lasuen, Lausen da. Horrela esaten digu irakasleak”. Nik ezetz, hark euskalduna behar zuela. Lasuen zela, eta ez Lausen, nahiz eta gure alabaren irakasleak modu horretan ahoskatu. Eta izen horien peskizan hasi nintzen.

Nola bideratu zenuen zure jakin-mina?

Historia liburuak irakurtzen hasi nintzen, eta laster konturatu nintzen euskal izen mordoak ageri zela. Pila! Gobernadore eta bestelako. Arrillaga, Borika, Oñate, Anza... Eta horiei buruz idazteko asmoa hartu nuen. Hala ere, ez nuen historiografian oinarritu nahi, dokumentu originalak nahi nituen —ahal zela, behin-

tzat-, eta bila abiatu nintzen. Ederra ere izan zen. Izan ere, administrazio kolonialak agindua zien lehenengo esploratzaile eta nabigatzaileei ikusten zuten guztiaren berri zehatz emateko, txostenak eta beste. Laster irakurri nituen Sebastian Vizcainoren egunerokoak, Juan Bautista Anzarenak, Jose Joaquin Arrillagarenak... Orduantxe hasi nintzen neure buruari esaten han bazela errealtate bat guri guztiz ezezaguna zitzaiguna. Dokumentu bila hasi nintzenean, arkeologia egiten ari nintzela iruditu zitzaidan: ezkutuan zegoen errealtatea azalera ekartzeko lana. Beste batzuetan, arkeologo lana ez, detektibe lana egin behar izan dut. “Non egon daiteke Jose Maria Zalvidea fraide bizkaitarrak idatzitako egunerokoa?”, nik, Hubert Howe Bancroft historialariaren lanetan haren aipamena egiten baitzen! “Non dago egunerokoa?”. Santa Barbarara idatzi, misio frantziskotarren artxibategira, eta han, ezetz. “Baliteke halako tokitan egotea”. Eta jo batera, jo bestera... Zalvidearen egunerokoaren originala, esate baterako, Berkeleyen aurkitu nuen, Bancroft liburutegian. Hantxe dago Arrillagak Colordoko yumen lurraldera egindako espedizioaren egunerokoa ere. Nire lana izan da, eginahalean, originalak aurkitzea. Zenbait kasutan, ingelesezko testua besterik ez dut aurkitu, baina gehienetan dokumentu originalera iristea lortu dut.

Eta originalak eskuratu ondoren?

Bada, pazientzia handiz irakurri. Eta pasarterik pasarte, testu pintoreskoak gabe, narrazio nagusiaren harian testu inportanteenak, esanguratsuenak izan zitezkeenak aukeratu. Kalifornian nengoen bitartean hainbat dokumen-

tu lortu nituen. Hango egonaldia bukatuta, berriz, hemen, bateko eta besteko artxibategira bidean trebatu naiz. Asko ikasi dut bidean! Indietako Artxibategi Nagusia, Sevillan (Espainia) dagoena. Hango on-line materiala! Zalduondon izan zintezke, eta, aldi berean, XVII. mendean fraide euskaldunak idatzitako eskutitza zuzenean irakurtzen!... Horrela osatu dut *Kaliforniakoak*, poliki-poliki.

“Poliki-poliki”...

Testuak bata besteari lotzea gertatu zait zailen. Nik nahi nuen irakurleak liburu hau narrazio bat bezala irakurtzea. Horretarako, loturak egin beharra neuzkan, ataletik atalera, jauzi handirik egin gabe. Narratibitate horixe izan dut zailena. Bestalde, irakurgarritasuna izan dut beti helburu. Uste dut gaia interesgarri zaiola euskaldunari, gure oroimen historikoan

“Uste dut gure oroimen historikoan egon behar dutela Kaliforniaren esplorazioan eta kolonizazioan parte hartu zuten euskaldunek”

egon behar dutela Kaliforniaren esplorazioan eta kolonizazioan parte hartu zuten euskaldunek. Nire obligazioa, beraz, hori modu erakargarrian aurkeztea da. Aha! legin handia egin dut horretan, narratibitatean, testu argia eta ondo irakurriko den bat egiten.

Obligazioa nuela uste dut, eta hori ez da berez ateratzen, ez da lehenengoan ateratzen, ez bigarrenean, ez hirugarrenean. Berridazketa lan etengabea da, luzea.

Testuetarik gehienak euskarara ekarri dizkiguzu. Zenbait, gaztelania zaharrean utzi. Zein izan duzu irizpide?

Batzuetan iruditu zait pasarte batzuk –Fermin Lasuen frantziskotarraren eskutitzetako pasarte batzuk, adibidez–, zoragarri zeudela bere horretan. Nik egin nezakeen itzulpenak ez zien onik egingo, hain ondo zeuden idatziak! Kontrakoa: gaurko hizkuntza estandarrera itzulita arrunt bihurtuko nituen. Testurik gehienak euskarara ekarri ditut, bai, baina batzuetan hizkuntzak berak, garaiko gaztelania horrek, denboraren marka zeramala iruditu zait, gertaerak kokatzen laguntzen zuela, eta egoki iruditu zait testu horiek bere horretan uztea.

Arestian ere esan dugu, *Far West...* lehenengo, *Kaliforniakoak* gero, baina inpentsan etorri da bigarren hau.

Far West... idazten ari nintzenean nik ez nekien batere, hau idatziko nuela. Niretzat, Kaliforniaren aurkikuntzaren historia aurkikuntza izan da! Mendebalde Urruneko errealtatearen berri banuen, gutxi gorabehera. Kaliforniakoak, aldiz, berria gertatu zait: ez nuen espero Kaliforniaren sorreran hainbeste euskaldunek parte hartzea, eta, gainera, maila horretako protagonismoa izatea.

Zalvidearen espedizioa, 1806

“IBILALDIA HASTEAN oso bide txarreko paraje bat igo behar izan genuen: gero ordoki batzuetara atera ginen, eta handik bi legoara Talihuilimit rancheria aurkitu genuen. Hiru andre adineko bataiatu nituen han: lehenengoa hirurogei urtekoa, hanka batetik ezinduta zegoena; Maria Magdalena jarri nion izena: andre honek seme bat du Santa Inesen: bigarrenak 65en bat urte izango ditu, eta gerrian hartz batek hozka eginda dago: Maria Marta jarri nion izena. Seme kristau bat dauka La Purisiman: bataiatu nuen hirugarrenak ehun urtetik gora izango zituen eta Maria Francisca jarri nion izena (...) Aipatutako ranchitoan bost andre zahar eta agure bat bataiatu nituen: lehenengo andreari Maria Lucia jarri nion izena; bigarrenari, Lucia Maria; hirugarrenari Maria Dominga; laugarrenari, Dominga Maria; bosgarrenari, Fernanda, eta agureari Fernando”.



Duela hiru urte Stanforden zinetenean, zer zenezien Kalifornian izan ziren euskaldunen gainean? Gaur egungo berri nuen, besterik ez. Liburua, alde horretatik, ikasketa prozesua gertatu zait.

Lan ikaragarriak dira, mardulak, ongi zama-tuak. Enpresa handiak, esan nahi dut...

Uste dut inkontzientea naizelako egiten ditudala. Lanean hasten naizenean ez naiz konturatzeko non ari naizen sartzen. Jakingo banu, ez dakit abiatuko ote nintzatekeen era honetako lanean. Azken lau urteotan ia ez dut besterik egin. Irakasle naiz, lanaldi osoan, eta ez dut liberaziorik izan lan hau egiteko... Baina gaiari heltzen diozu, interesgarria iruditzen zaizu, jakin-mina pizten zaizu, eta segitu egiten duzu. Datu batek beste batera eramaten zaitu, halakok beste halakora, bata besteari lotuta daude... eta horrela.

Inkontzientea zarela esan duzu, baina ez dakit xuxen zer esan nahi duzun: inkontziente, ala insomne? Zu, izan ere, insomnea baitzara...

Bai, kar, kar, kar... Biak, inkontziente eta insomne. Horrek ere lanean jartzen nau, bai. Hala ere, pozik jarduten dut egiten ari naizen bitartean. Akabo, bestela!

Kaliforniakoak irakurritz, Euskal Herriaren historiaz ez ezik Kaliforniaren historiaz ere jabetzen ahal gara...

Hala da. Izenburuak ere jolas hori egin nahi-

"Far Westeko Euskal Herria idazten ari nintzenean nik ez nekien batere, liburu hau idatziko nuela".

ko luke. Nori buruz da liburua? Kaliforniako euskaldunei buruz, bai, baina baita Kaliforniako jatorrizko biztanleei buruz ere. Liburuaren hasieran, Kalifornia hutsune bat da garai hartako mapetan; eta gero-koetan ere bai. Liburuan, Kaliforniaren mapa nola perfilatzen eta zehazten den ikusten dugu hara joan ziren euskaldunen begietatik. Esate baterako, zenbat indio nazio ezberdin zeuden lurralde hartan, zenbat hizkuntza, zenbat ohitura ezberdin... Esploratzaile, fraide, nabigatzaile euskaldun horien bitartez, Kalifornia hura zer zen ikus dezakegu. Kaliforniakoak, beraz, euskaldunak dira, baina baita hango lehenengo biztanleak ere. Erabili dudan

materialak uste dut interes handia duela, Kaliforniari eta bertako biztanleei buruzko lehenengo albisteak direlako. Idatzitako hauek baino lehen ez dago ezer. Antropologoak eta gainerakoak, lehenengo Kalifornia haren berri izan nahi dutenean, nik erabili ditudan dokumentuetara jo behar dute ezinbestean. Europarren eta indiarren arteko lehenengo harremanaren lekukotasunak dira. XIX. mendearen erditik aurrera, dokumentuak askoz ugariago dira, baita indioen ikuspegia ematen dutenak ere.

Baina ordurako liburu honetan aipatzen diren indio nazio asko desagerturik zeuden, eta iraun zutenen bizimodua, kutsatuta. ■



CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

NIKOLAS LEKUONA, JAIOTZAREN MENDEURRENEAN

Abangoardiaren katebegia

Luzeago bizi izan balitz, bere lan-lerroak garatzeko urteak izan balitu, itzal handiko artista izango omen genukeen. Lau urte besterik ez zituen izan arteari ganoraz eskaintzeko, baina lorratza utzi zuen landutako diziplinetan, hala nola, margoa, marrazkia, argazkia eta fotomuntaketa. Haren ekarpenaren aitortza aski berandu heldu bazen ere, Nikolas Lekuona Nazabal (Ordizia, Gipuzkoa 1913- Fruiz, Bizkaia, 1937) erreferentziazko autoreia izan zen abangoardiako artean.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

XX. MENDEKO lehen hiru hamarkadetan Europan loratutako korronteek liluratu zuten Lekuona gaztea, eta artean Madrilén bizi zela –aparejadore izateko ikasten ari zen– murgildu zen ur horietan bete-betean. Orduan bogan ziren zenbait ideia, Futurismoa, Errusiarren Konstruktibismoa edo Frantziako eta Alemaniako Surrealismoa barneratu zituen eta bere moldera egokitu.

Arte esparru ugartan jardun bazuen ere, aipamen berezia egin ohi diote adituek fotomuntaketan egindako lanari. Garai hartako medio kutuna zen collagea, baina Europako korronteari jarraitu ziotenek ez bezala, Lekuonak kritika sozial eta politikoz jantzi zituen bere obrak. 1932 eta 1935 urteen artean sortu zituen gehienak, eta bi gai landu zituen bereziki: langile eta nekazarien mundua eta gerrarekin zerikusia zutenak. Kapitalismoaren eta gerraren sinbologiari muzin egin zien, eta emakumeari eta kirolari lotutako irudiak sortu zituen. Artistentzat ez ezik, afixak nahiz aldizkari eta liburuetak azalak egin dituztenentzat ere kontuan hartu beharreko erreferentzia izan da bere teknika, urte askoan.

Argazkilaritzan emandako pausoak ere miretsiak izan dira, bereziki abenduan, bere jaiotzaren mendeurreneko ospakizunetan. Ordiziako Ortzadar Argazki Elkarteak, esaterako, *Abangoardista baten egungo irakurketa 1913-2013* erakusketaren bidez omendu du herriko semea. Elkarteko hamaika argazkilarik –Amaia Oararteta, Iñaki Sanchez, Francisco Albarran, Iñaki Hidalgo, Jose Migel Romero, Javier Quiros, Miguel Cavero, Julen Sainz, Omar Ben Miloud, Angel Fernandez eta Aitzol Arruabarrena– autorearen argazkiak eta muntaketak berrinterpretatzeko saioa egin zuten. Abangoardistak egin bezala, argazkilariok 35 eta 50 mm-ko optikak balia-



Teknika dadaistak eta neodadaistak baliatu zituen, eta surrealisten sarkasmoa.



tu zituzten, eta garrantzi berezia eman zioten umore-drama binomioari.

Sarritan landu zuen heriotza, eta behin baino gehiagotan eszenaratu berea, laster batean gertatuko zitzaiona igarriko balu bezala. Gerran hil zen Lekuona, frankisten bonbapean, anda-eramaile lanetan ari zela. Kurioski, bando horren alde egin zuen Ordizia okupatu zutenean. ■





Intxaur-hauskailua.

Txaikovski-Vainonen.

San Petersburgoko Yacobson Balleta

Zuzendaria: Andrian Fadeyev.

Bakarlariak: Alla Bocharova, Artyom

Pykhachov, Ilia Osipov. **Lekua:** Euskalduna

Jauregia. **Data:** abenduaren 25a.

Ballet klasikoaren xarma intenporala

LITERATURAN edo zineman bezala, noizean behin (edo sarritan) klasikoetara hurbildu behar gara. Dantza klasikoaren abangoardia zaindu behar da, noski, baina dantza klasikoaren “klasikoetan” aurkitzen dugu arte honen oinarria, jatorria, eta publikoak ezagutu eta disfrutatu beharko luke erreperitorio zoragarri hori. Kurioso da, baina urtean zehar gutxitan ikus ditzakegu *Zisneen lakua*, *Giselle* edo oraingo honetan komentatu behar dudana *Intxaur-hauskailua* bezalako titulu ahaztezinak. Antzokietan ditugunean, beraz, ez genuke aukera galdu behar.

Intxaur-hauskailua balletak, Txaikovski-ren musika duenak, denetatik dauka jendea txunditzeko. Konpositore errusiarraren musika ezti eta imaginatiboaz gain, Vassily Vainonen-en koreografia ameslaria eta gozoa du (ez gozoegia ordea), perfektuki egokituta partiturara. Baina agian onena istorioa bera da, E.T.A. Hoffmann-en ipuin batean oinarritua, *Intxaur-hauskailua eta xaguen erregea* titulua duena, hain zuzen ere. Printzipioz umeei zuzendua, baina sakonean helduen kezka tratatzen dituen: haurtzaro galduaren betiko nostalgia, umeen amets-munduaren eta helduen mundu errearen arteko aldea... Hori guztia, bilgarri naif batean.

Bertsio ederra eta koloretsua egin zuen San Petersburgoko Yacobson Balletak, Andrian Fadeyev-en zuzendaritzapean. Egia esan, sorpresa hartu genuen muntaia ikustean. Azkenaldi honetan, Errusia eta ekialdeko beste estatuetatik ekarritako ikuskinak pobreak edo dekadenteak suertatzen dira. Kasu honetan ez. Dekoratu egokiak, ondo eginak, efektudunak ikusi genituen. Jantzien aldetik, gustu ona, ñabardura zainduak. Eta, inportanteena, dantza teknika oso zaindua. Bakarlari apartak: Alla Bocharova, Clararen rolean, adierazkortasunez eta doitasunez aritu zen. Teknika segurua du, oso estetikoa. Printzearena egiteko, Artyom Pykhachov sendo ikusi genuen zailtasunez beteriko zilipurdietan. Eta Ilia Osipov-ek, Drosselmeyer paperean, sinesgarritasuna eman zion bere aktuazioari. Momentu konplikatuak ere egon ziren, baina oso gutxi, eta justifikatuak: *Loreen balsa* taldeko numeroak sinkronizazio perfektua exijitzen du eta ez zuten erabat lortu. Halere, gustu ona barra-barra eta, benetan, ikusi beharreko espektakulua. ■

Montserrrat Auzmendi





Haur eta Gazte Literatura

Hizkimilikiliklik!

Iñaki Arranz

Irudiak: Inma Mendiola

Ibaizabal, 2013

Gozokhizkiak

LIBURU BITXI honen izenburutik bertatik igartzen da hitzekin jolasteko gogoia. *Hizkimilikiliklik!* dugu liburu honen izenburua, eta hizkiekin eginiko 28 jolas ageri zaizkigu orrietan barna. Horrela, irakurleak, “b” letraz hasitako hitzez osatu den istorioa aurki dezake (“Behin batean... Beñat Bengoa Bergaretxe basozaina bazihoan bakar-bakarrrik basoan barrena...”), izen-abizenak letra berberekin dituzten pertsonaiak poema batean (Luzia Azilu, Garazi Garzia, Itziar Arizti...) edo “a” bokala, eta besterik ez, erabiliz egindako ipuina (“Amama zaharrak laranja atalak, banana azalak, patata kaskarrak, sagar garratzak... danak nahas-mahas, askara daramatza. Antzara aldra bat...”).

Irakurleak atal bakoitzean jolas bana topatuko du, batzuetan irakurlearen konplizitatea edo inplikazioa bilatzen duena (desagertutakoa bilatzeko, esaterako), eta beste batzuetan harridura edota irribarrea.

Liburu bitxia Iñaki Arranzen hau, bitxia eta landua, irakurlearengan hizkuntzarekin jolasteko gonbitea eragiten duena; idazleak sorturikoen parekoak bururatuko al zaizkio!, edo nondik aterako zaigu hurrengo atalean?. Eta, egia esan, 28 letra direnez alfabetoan (alfabetoa azaltzeko ere bada kapitulu edo atal bat), 28 dira liburu osatzen duten atalak. Batzuk nahiko laburrak, hasierako poematxo bezala, baina beste batzuetan proposaturiko jolasak istorio baterako baino, bost istoriotarako ematen du; “Denok zer edo zer faltan” kasuan bezala. Honetan ipuin berbera kontatzen zaigu baina bost bider, eta bakoitzean bokal bat falta delarik kontakizunean, horrela lehenengoan “u” letra gabe kontatzen zaigu neskata gazte baten istorioa askara bidean desagertu zena kontakizalearen ondotik pasa eta gero; segidan “o” letra gabe, “i”, “e” eta azkenik “a” gabe kontatuko zaigu neskataren desagertzea, horretarako idazleak aldaketa txiki batzuk egin behar baditu ere.

Hizkimilikiliklik! liburu guztiz berezia dugu euskal letretan eta narratibatik duen bezala poesiatik ere badu; are gehiago, nik uste kontakizunak bata bestearen ondoren irakurri beharrean pikatzen, pintxoak bezala, apurka irentsi edo irakurri behar ditugula, bakoitzaren jolasarekin, egileak proposatzen duen jolas horretan partaide izanez.

Arlo gastronomikora ekarriz, 28 gozokiz osaturiko lana dela esan genezake, eta alde horretatik, gozokiak bezala, hauek ere banan-banan, disfrutatuz, hartu beharreko atalak direla. Amaieran irakurleak berak gozoki berri batzuk sortzeko nahiko “errezeta” izango dituelakoan... edo, gutxienez, gozokhizkiak! ■

Xabier Etxaniz Erle



Saio osatu gabea

TRANSIZIOA aztertua da saio labur honetan. Zenbaitek espainiar demokraziara iraganbidea erduztat jo zuten. Aldiz, frankismotik demokraziarako aldaketa garaian ez zela behar bezalako justiziarik egin, dio saioegileak. Trantsizioa tabu dela dio ere bai, egungo Espainia ulertzeko ideia adigaitza.

Justizia bilatzeko hizkuntza berealdiko lanabestzat jotzen du egileak, poesiara jotzeko beharra aldarrikatzen du. Ordea, trantsizioaz ezer gutxi idatzi da justizia poetikoaren ikuspuntutik, Gabriel Aresti—*Zuzenbide debekatua* poemari esker—da salbuespen bakarra.

Trantsizioa ez ei zen 1975ean hasi, Franco hil eta gero, espainiarrek sinestarazi nahi izan duten bezala. Trantsizioa 1960an hasi zen, ETArekin sorrerarekin, Arestik 1691n idatzitako *Zuzenbide Debekatuaren* garaian edota Zamorako kartzelan sartu zituzten apaizen erreboltarekin. Hala ere, frankismoa eraitsi zuten belaunaldi haien borrokaren kontakizuna ez da behar bezala idatzi. Amnistiaren bidez irabazi zuten askatasuna, baina justizia egin gabe. Are, zapalduet eta zapaltzaileei justizia bera “ezarri” zitzaion. Frankistak amnistiatu izan ziren, euren krimenak epaituak eta zigortuak izan gabe.

Berrogeita hamar urte joan dira. Artean gauzatu ez den justizia egin behar dugu, baldin eta justiziaren balantza orekatzea lortuko badugu. Egileak trantsizio hura birplanteatu beharra ikusten du, iraganean gertatutakoaren errelatoa eta bizitakoaren araberako “kritika edo autokritika politikoa” egin ahal izateko. Saioak egungo garairainoko bidea aztertu du, baina iragan berriko hainbat “gertakari” politikoetan sakondu gabe. Nik “autokritika” antzeman diot eskas saioari, baita bigarren trantsizioa gauzatzeko jarraibideak eskaintzea ere. Saio politikoaz gain soziologikoa egitea eskertuko nioke egileari, arazoa politikatik baino ikuspegi soziokulturaletik aztertzea.

Saio honen segidakoaren aiduru geratzen naiz. ■

Mikel Asurmendi



Justizia Interditaren Poetika

Fito Rodriguez

Utriusque Vasconiae, 2013

Herritmo

Oreka Tx, Kukai, Kalakan

Zuzendaritza artistikoa: Hansel Cereza, Harkaitz Martinez de San Vicente.

Zuzendaritza eszenikoa: Hansel Cereza. **Koreografia:** Jon Maya.

Dantzariak: Noemi Viana, Anne anza, Kukai Dantza Konpainia (Nagore Indakoetxea, Nerea Vesga, Urko Mitxelena, Alain Maya). **Musikariak:** Oreka Tx (Harkaitz Martinez de San Vicente, Mikel Ugarte, Mixel Ducau, Iñigo Egia, Juanjo Otxandorena), Kalakan (Thierry Biscary, Jamixel Bereau, Xan Errotabehere). **Herri kirolariak:** Alex Txikon, Ernesto Espeleta, Julen Mendieta, Done Intxausti. **Hitzak:** Uxue Alberdi, Xabier Sukia, Jon Maia, Ernest Alkhat, Amets Arzallus, Beñat Sarasola, Luis Mari Mujika.

Bizitzaren tempo

“MUNDU HONETAN denak du bere tempo, ez bakarrik musika tresnek; aizkolariak ere enborra mozterakotan tempo jakin bat du, edo harri-jasotzaileak. Naturala, benetakoa, berea. Harri-zulatzailak, hain da garrantzitsua Bizkaiko kulturean, ezen antzokian ere lekua baitu. Agian lehen aldia da antzoki batean dagoela, gauza ezohikoa baita herri kirola antzokian. Nola konektatu

indarra eta oreka horrekin. Herri baten pulsuaz ari gara, gure herriaren tempoaz, gaur egungoaz. Herri kirola herri baten espresioa da, gure nortasunaren isla”. Harkaitz Martinez de San Vicenteren hitzak dira, Herritmo ikuskizun berriaz ari da.

Berak eta Mikel Ugartek (txalapartan), Mixel Ducauk (haize tresnetan), Juanjo Otxandorenak (soke-tan) eta Iñigo Egiak (perkusionan)

osatzen dute Oreka Tx. Durangoko Azokaren atarian aurkeztu zuten euren azken lana, *Silex* (jotzen duten harrizko txalapartaren materialari erreferentzia eginez), Txalapart ekoizteketxearen eskutik plazaratua. Kalakan hirukotea izan dute lagun ahotsetan abentura berri honetan, diskoari dagokionez. Baina tradizioa eta garakidetasunaren arteko lerro mehea urratzeko,

ALBERTO ELOSEGI



Kukai dantza taldea gehitu zaie *Herritmo* ikuskizunean. Tradizio hori gaurkotzeko orduan, herri kiroletan aurkitu dute inspirazioa, eta plaza-tik antzokira eramán dituzte, nekazal giroa hirira ekarriz. Baina ez nolanahi. Sei dantzarik, zortzi musikarik eta beste hainbat kirolarik parte hartzen dute ikuskizunean.

Herritmok, H-z, herri baten erritmoari egiten dio erreferentzia. Diziplina anitzeko ikuskizun honek lau ardatz ditu: musika, Oreka Tx-en eskutik, kantua Kalakanen eskutik, dantza, Jon Mayak zuzentzen duen Kukai dantza konpainiaren eskutik, eta herri kirolak, ikuskizun honetan parte hartzen duten kirolarien eskutik. “Guretzat herri kirola oso diziplina deigarria izan da betidanik, sentimendu handikoa. Herri kirolek duten desafio edota erronka zaletasun horrekin ulertu dugu proiektu hau, halaber. Guretzat, proiektua aurrera ateratzea 300 kiloko harri bat



altzatzea bezala izan da” dio Har-kaitz Martin de San Vicentek. Entrenatzaile lanetan, zuzendari artistiko Hansel Cereza (La Fura dels Baus, Cirque du Soleil) kataluniarrarengana jo dute, kanpo ikuspuntua eskaintzeko. “Dantza, musika edo kantua- ren eta herri kirolaren arteko indarren oreka bilatu nahi izan dugu”, dio Hansel Cerezak.

Jon Mayak, Kukai dantza konpainiaren koreografoak, opari gisa hartu du *Herritmo* ikuskizuna. Taldeko ohiko dantzarietz gain, Noemi Vianak eta Anne Anzak ere parte hartzen dute. Dantza garaikidean aritzen dira biak, hala ere ez zieten muzin egin arin-arinei. “Beraien parte hartzeak aberastu egin du ikuskizuna, dantzari dagokionez”, dio koreografoak. “Pertsonalki, esan behar dut, euskal kultura eta euskal tradizioa ulertzeko modu bat dugun taldeak bildu garela proiektu honetan. Hau da, gaur egungo kultura egiten badugu ere, gure herriko tradizio-tik edaten dugu eta hori da gure oinarria. Eta gu denok elkartzea benetan da interesgarria, zure barrura begiratzeko aukera ematen dizulako. Honen atzean badago hausnarketak eta da, zergatik egiten dugun egiten duguna, eta nola iritsi garen honaino”, azaldu digu Mayak.

Jamixel Bereau Kalakaneko abeslaria pozik agertu da Oreka Tx eta Kukairekin egindako lanagatik. “Koherentzia handiko lana da,

• ERDIKO KAIERA

askotan ez baita izaten erraza euskaldunok gure nortasunarekin dugun harremana. Eta euskal sortzaileek are gutxiago, badugu arazo hori gure artean. Musika sortzeko, zer den euskal musika, nondik datorren... Tradizioa eta modernitatearen arteko oreka, euskal nortasuna... Horregatik, uste dut hirurak elkarrekin egotea gauza normala dela, gauza asko baitugu elkarrekin, gizakia, mundua, artea nola ikusten ditugun... Istorio bat kontatzen dugu, emozioak eta indarra sortuz, bizitzez, euskal nortasunaz edo norberarenaz”.

Ikuskizuna zirraragarria da. Dantzariak taldeka ari direnean erabat menperatzen dute espazio eszenikoa, dantza garaikidea eta tradiziozionala batuz, Kukai konpainiak ondo egiten dakien moduan. Banaka, binaka eta taldeka aritu ziren jotak, fandangoak eta garaikidetasuna zerien mugimenduak bilduz. Musikariak, Oreka Tx-k eta Kalakanek euskal kantutegi tradizionala eta fusioa bildu zituzten. Bi txalaparta mota erabili zuten, harrizkoa eta egurrezkoa, erakutsiz berriro ere, musika-tresna erritmiko horrek musika armonikoa egiteko ere balio duela.

Ducauk edota Otxandorenak musika tresna ugari erabili zituzten. Soketan aritu zen Otxandorena, gitarra eta mandolina erabiliz. Ducauk, berriz, alboka, saxoa edota txirulak jo zituen. Kalakaneko abeslariak ondo aritu ziren, *a capella* zein musikariek lagunduta. Ikuskizunaren azken txanpa herri kirolariak eman zuten, enborrak moztuz, harriak altxatuz eta harrian zuloak eginez (bi neska aritu ziren kirol honetan). Publikoak, gogoz eta oihuz jarraitu zituen kirolarien abileziak.

Bilboko Arriagan estrenaldia egin ondoren, Iruñeko Gaiarre antzokian eta Gasteizko Principal antzokian izan ziren, eta “sarrerak agortuta” kartela eskegi zen lehiatiletan; abenduaren 27an Gernikako Lizeo antzokian, eta urtarrilaren 4an Donostiko Kursalean. Otsailaren 22an Baionako antzokian izango da ikusgai. ■

Myriam Garzia



Mihiaren bidez gurpildun aulkiak mugitu

ATLANTAKO (AEB) ikerlari talde batek *Science Translational Medicine* aldizkarian argitara eman berri duen artikuluan dienez, tetraplegikoek orain arte baino modu hobea izango dute euren gurpildun aulkiak gidatzeko.

Gaur egun, tututxo batean indar handiagoz ala txikiagoz putz eginez gidatzen dituzte aulkiak, baina laster mihia erabiltzerik izango dute. Horretarako, titanio magnetizatuko *piercing*-a kokatu beharko dute mihian; eremu magnetikoen aldaketak neurtzen dituen tresna batek detektatuko ditu haren mugimenduak.

Mihiak hamazazpi muskulu ditu eta oso mugimendu zehatzak egiten ditu horien bidez. Saiakeran parte hartu dutenek oso ongi eta erraz higitu dituzte euren aulkiak edota pantaila bateko sagua. Ikerlariek lortu egin dute, gainera, sistema berria – TDS izeneko – jatean edo hitz egitean ez aktibatzea. 2015ean haren erabilera zabaltzen hasiko dela aurreikusi dute. ■



GARY MEEK / GEORGIA TECH



Proteinen egitura bereizmen handiz ikusteko teknika berria

Ikerlari talde batek –Euskal Herrian dagoen CIC nanoGUNEko zenbait zientzialari barne– teknika bat garatu du proteinen egitura orain arte baino askoz bereizmen handiagoz atzemateko. Lanaren emaitzak *Nature Communications* aldizkarian argitaratu dituzte.

ttiki.com/59121

(Euskaraz)

Gero eta miopia gehiago haurrengan

Umeen eta gazteen ohiturak asko aldatzen ari dira azken urteotan. Besteak beste, gero eta denbora luzeagoa ematen dute leku itxietan. Horrekin lotuta, miopiaren hazkunde esponentziala erakutsi du berriki egindako ikerketa batek. Batez ere Asian detektatu da hazkundera.


ttiki.com/59122

(Frantsesez)

Ahalmen handiagoa zuntz optikoetan

LAUSANAKO ESKOLA POLITEKNIKOKO Luc Thévenaz eta Camille Brès ikerlariek iragarri dute egungo zuntz optikoa hamar aldiz azkarra izatea lortu dutela.

Zuntzetan informazioa garraiatzeko argi-pultsuak erabiltzen dira, bata bestearen ondoan kokatuz. Bi argi-pultsuren artean tarte bat utzi behar da derrigorrez, bestela seinaleak nahasteko arriskua baitago, eta tarte huts horiek zuntzen ahalmena hobetzeko muga dira. Lehen lau urte behar ziren zuntzen ahalmena hamar aldiz handitzeko, baina azken urteotan nahi eta nahi ez utzi beharreko hutsarteek ikerketaren aurrerapena baldintzatu dute. Suitzako ikerlari taldeak, berriz, hutsartearen tamaina dezente murriztea lortu du. ■



BLOG.CAPTALIS.COM



Argazkietan pertsonak identifikatzeko algoritmo berritzailea

Sare sozialetako argazkietan pertsonak identifikatzeko sistema garatu dute Torontoko Unibertsitateko ikertzaileek, pertsona horien izenak etiketatu gabe daudenean ere. Algoritmo berriak argazkietan ageri direnen arteko harreman probableak kalkulatu ditu, sare sozialetan dauden beste argazki batzuetako informazioan oinarrituta.

ttiki.com/59123

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Jaio ginen eta bizitzea zor

GOZOA DA algarrobondoaren leka, *Ceratonía siliqua*. Arbolaren zurak bezala, lekak, gozoa izateaz gain, erabilera ugari du. Guk txokolatearen ordezkotzat egiteko darabilgun leka hori koioteen gutizia da, Kalifornia aldean. Olibondoak (*Olea europaea*) edo sagarrondoak (*Malus × domestica*) bezala, Europan zenbat gauzatarako egokia zen ikusirik, AEBetara algarrobondoak eramatea otu zitzaion baten bati. 1856. urtean, Espainiatik, 8.000 landare eraman zituzten eta Florida, Arizona, Texas eta Kalifornian aldatu. Ondoen Kaliforniako bizimodura egokitu zen, etsi-etsian ederki moldatu ere. Geuk bezala landareek ere badakite “jaio ginen eta bizitzea zor” esaten. Egun lan-

dare inbaditzailetzat dute han. Epaia eman eta ipurditik moztuta ere, altsuma ugari indarrean emanez ederki ernaberritzen da. Baldintza ekologikoak, klima eta lurra batez ere, ote dira Kalifornian beste lekuetan baino hobeak algarrobondoarentzat? Ala, bere lekazalea den animalia bat han baino ez du aurkitu? Koiotea. Hark, lekak janez, haziak barra-barra barreiatuko ditu, han eta han. Algarrobondoak zer atarramendu luke koioterik gabe? Naturan hain ugaria den elkar laguntzearen beste adibide baten usaina hartzen diot nik txokolate horri...


Likenak dira horrelako elkartzeen adibide ezagunenetakoa. Onddo baten eta alga baten elkar-

tea da likena. Biek etekin ona ateratzen dute. Eguzki irraden eta lehortearen aurrean babesa dakar onddoak, eta algak, landareek bezala, fotosintesia egiteko gaitasuna. Bitasun horrek ikaragarritzko arrakasta izan du guk “gure” deitzen dugun mundu honetan. Euskarazko Wikipediak dioenez hogei milioi espezie inguru liken dira, katalanezkoak, aldiz, 20.000 bueltan direla dio. Batek daki! Zerbait izango da. Zenbat mila gorabehera, lurreko azaleraren ehuneko sei likenek harrapatua omen dago. Elkartzeak izugarritzko indarra eranstean dio eta ia beste inor bizi ezin daitekeen tokietan ere hazi eta bizi dira. Basamortu idorrenetan, polo izoztuetan... Likenak gai berezi batzuk sortzen dituzte, zeinak medio, ura eta argia hobeto baliatu eta hondakinak kanporatzeko gaitasuna aragotzen baituten. 2005ean, Madrileko Complutense Unibertsitateko irakasle Leopoldo Sanchok, Errusiak jaurtitako Soyuz ontzi batean espaziora bidali zituen bi liken. Hamabost egunez ontzitik kanpora izan zituzten, espazioko hutseko irrada eta tenperatura goiti-beheetiko izugarrien mende. Bueltan etorri zirenean, inongo kalte arrastorik gabe, ongi bizitzen jarraitu zuten. Jaio ziren eta bizitzea zor. ■

Likena zuhaitz adar batean. Lurreko azaleraren %6 estaltzen omen dute likenek.



NORBERT NAGEL-CC BY SA



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, zer gertatzen zaie gure azaloreei? Baratzetan hasi berriak gara eta alferrik galduz gero nahigabe ederra hartuko genuke. Eskerrik asko

Intza Etxeberria (Hernani)

Kaixo Intza. Nire iritziz bi arazo uztartu daitezke azalorearen koba edo buru honetan: tenperatura gorabeherak eta gaitza. Zulotxo eta arrasto gorri horiek buruaren tontorrean azaltzeak izotzaren azioa izan daitekeela dio. Ur tantak bildu, eta gero hotzak ttantak izoztu eta



horiek azalore fina erre. Erreduretatik gaitza sartzea erraza da, batik bat giro epelak badira, aurten bezala. Beraz ahal bezain azkar jan eta goza. Eutsi baratzeari! ■


Bere lanak sinatu zituen lehen idazlea

UR, DUELA 4.300 URTE. Akkadeko errege Sargonek Enheduanna alaba hiriko barruti sakratuko *Entu* izendatu zuen. Barrutia Mesopotamiako gunerlijioso nagusietakoa zen, eta karguak printzesa Ningal jainkosaren berraragitze hilkorra zela esan nahi zuen. Beraz, Enheduanna Mesopotamiako ordezkari erlijioso gorena zen.

Enheduanna emakumea izateak ez zituen sumeriarrek kezkatzen; ohikoa zen jainkoek emakumezko ordezkariak izatea, eta hori debekatzuten zuten herriei iseka egiten zieten. Printzesa nerabea zen kargua hartu zuenean, eta beharbada erantzukizun handiegia izango zen gaztearentzat. Baina sumeriarrek gehien gogaitu zituen printzesa akadiarra izatea zen; akadiarrek hegoaldeko sumeriarrek konkistatu berri zituzten eta, hortaz, ez ziren oso maitatuak.

Ondorioz, inperioaren egoera ezin ezegonkorragoa zen. Sargon aita hil ondoren, Rimush neba izendatu zuten oinordeko, baina sumeriarrek hil egin zuten handik gutxira. Manishtusu neba ere estatu-kolpe batean hil zuten. Naram-Sin –Enheduannaren iloba– tronuan eseri eta gutxira, sumeriarrek matxinatu egin ziren eta inperioa Ur hiriburura murriztea lortu zuten. Naram-Sinek tronua bost urtez galdu zuen, Enheduannak bere kargu erlijiosoa bezalaxe. Bost urteko gerra zibil odoltsua amaitzean, biek karguak berreskuratu zituzten.

Urte horietan Enheduannak poema erlijioso ugari idatzi zituen. Idatzi eta sinatu; horrenbestez, historiako egile ezagun antzinakoena da. Poema horietako batzuek, *Tenpluetako ereserkiak* sortak hain zuzen, sumeriar erlijioa goitik behera aldatu eta elementu akadiarrak erantsi zituzten. Enheduanna baino lehen, jainkoek naturako elementuak irudikatzen zituzten: eguzkia, haizea... Printzesa akadiarraren eraginez panteoia giza pasioz bete zen. Esaterako, Enheduannak debozio berezia izan zuen



BRITISH MUSEUM

Ishtar, maitasunaren jainkosaren erliebea. Enheduanna baino lehen, sumeriarrek ez zuten jainkosa hau gurtzen, baina akadiar printzesaren eraginez Mesopotamiako panteoian toki berezia lortu zuen.

Inanna edo Ishtar jainkosarekiko; maitasunaren, sexuaren, ugalkortasunaren eta gerraren jainkosa zen, eta Mesopotamiako jainko nagusietakoa izango zen handik aurrera. Hortaz, historiako lehen teologo eta erreformatzaile erlijioso ezaguna ere izan zen Enheduanna.

Hura hil eta mende eta erdi inguru geroago, Ureko III. dinastiaren hasieran, printzesa jainkotzat zuten ia. Sumeriarrek Enheduannaren familiarekiko gorrotoa ederki erakutsia zuten gerran, baina belaunaldi gutxitan emakume hark herritarren maitasuna eta oroitzapena lortu zituen. Haren sistema teologikoa gailendu zen, eta akadiarrek zein sumeriarrek onartu zuten. Babiloniar garaian, 1.500 urte geroago, Enheduannaren literatura lanak irakurtzen eta goraiatzuten zituzten oraindik. ■



Arrastoak

Espainiar politika Galdosen arabera

IDAZLE OPAROA izateaz gain, Benito Perez Galdos (1843-1920) politikaria ere izan zen. 1886an Puerto Ricoko ordezkari izan zen Espainiako diputatuen kongresuan, eta XX. mendearen hasieran errepublikarrek eta sozialistek gobernua osatu zutenean ere diputatua izan zen.

Dirudienez, Galdosek eztabaida politikoaren maila jaso nahi zuen, baina haren ahaleginek ez zuten helburua lortu. “Etxe honetan ezin da ezertxo ere egin; herriari benetan komeni zaionari gibela ematen zaio. Nire ahaleginak alferrikoak izan dira”, esan zuen idazle kanariarrak.

Haren arabera, norberekeriak, alderdikoikeriak eta segizioaletasun politikoak lehenetasuna zuten, herritarren interesak baztertuta. Hasieran zenbait kontu hobetzeko gai izango zela uste zuen, baina berehala konturatu omen zen neurri eraginkorrak bultzatzea ezinezkoa zela, eta diskurtsoa sakontzeko saiakerak ere alferrikoak zirela. Ehun urtetik gora joanda ere, zenbait gauza ez dira aldatzen. ■



GALDOS MUSEO-ETXEA

JOSEFINA LAMBERTO YOLDI

«Pozik nago, baina ez guztiz»

1936an Vicente aita fusilatu zioten Larragan; Maravillas ahizpa bortxatu eta hau ere hil. Ordutik bizitza krudela izan zuen Josefina Lamberto Yldik. Nafarroako 1936ko biktimen legeak aitortza ekarri dion arren, sentsazio gazi-gozoa du, ez baitu aitaren gorpua berreskuratzerik izan.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

2013KO AZAROAN Nafarroako Parlamentuak 1936ko altxamendu militarren ondorioz hil eta errepresioaren jomuga izan ziren biktimen memoriaren aldeko legea onartu zuen, UPNren abstentzio bakarrarekin (41. orrialdeko koadroa). 1936ko gerra hasi eta 77 urtera etorri zaio Josefina Lambertori parlamentuaren aitortza. Askorentzat berandu iritsi bada ere, orduko indarkeria jasan zuten 3.400 hildakoen senitartekoek zor zitzaizen sostengua lortu dute.

Parlamentuak legeari bidea zabaldu zion egunean legebiltzarrera gerturatu zirenen artean zegoen bera eta gogoz txalotu zuen han hartutako erabakia. Bazituen pozik egoteko arrazoi franko, denbora luzean familiari jazotakoa salatuz han-hemenka ibilia baita. Maravillas Lamberto zuen ahizpa, 14 urte besterik ez zituela Larragan bortxatu eta akabatu zuten neskatoa. Ekitaldian erakutsitako poztasuna ez zen erabatekoa izan, ordea: “Pozik nago, baina ez guztiz. Orain, lege hori onartzea lortu dugula, ezin dut nire aita aurkitu. Berriki, hondeamakinak Ibiriku Deierri izan ziren, aitaren gorpuari lur eman ei zioten lekuan. Lursaila goitik behera arakatu zuten, baina ezin izan genuen ezer topatu. Diote-nez, han partzelaria egin zuten, eta lurrak zatikatu zituzten”.

Lambertok beti eraman ditu buruan iltzaturik txikitari ikusi behar izan zituenak: “Gauoko ordu bietan ate-joka hasi ziren, ireki ezean botako zutela mehatxatuz. Metrailetekin igo ziren, eta aitari arropak janzteko



KOLDO AZKUNE ETXABARRI

Josefina Lambertok 84 urte ditu egun. Bizitza osoan jaso ditu zigorrak eta mespretxuak fusilatuen senidea eta pobrea izateagatik.

agindu zioten. Logelak bi gelaxka zituen, batean gurasoek lo egiten zuten, eta bestean hiru ahizpok. Maravillasek ordurako 14 urte zituen,

eta bazuen herrian gertatzen ari zenaren berri. ‘Aitari egin behar diozuena ikusi nahi dut!’ esan zien erasotzaileei. Eta beraiek ‘etorri bada!’ erantzun zioten jarraian. Aita herriko kartzelan sartu eta ahizpa nagusia idazkaritzara igo zuten. Gizajoari irudikatu daitezkeen gaiztakeri guztiak egin zizkieten. Gure amak, goizean goiz, gosaria prestatu eta, arren, aita eta ahizpari eramateko eskatu zigun. Hara iri-

“Ama jota gelditu zen. Senarra hil zioten, alaba, eta ez hori bakarrik, alkateak lurrak bere izenean jarri zituen eta behorra ere kendu ziguten”

tsi ginenerako jada ez zeuden. 'Paseatzera' eraman zituzten, fusilatzen. Nire aitaren hilotza Ibiriku Deierriko herritar batzuek lurperatu zuten, eta ahizparena handik astebetera topatu zuten, basotxo batean, hanketan zakurren hozkadak zituela. Nekazariak aleak bereizteko makinaren gasolinarekin su eman zioten, usteltzen ari baitzen, eta zakurrak akabatu zituzten".

Josefina Lamberto Iruñeko Miserikordia Etxean bizi da. Goizeko 7etan esnatu eta pare bat orduz zahar egoitzako garbategian aritzen da lanean, sosa batzuk eskuratzearen. Gosaria hartu eta Paris 365 jantoki sozialera joaten da egunero laguntzera. Bazkaldutakoan, San Juan de Dios ospitalera hurbiltzen da, familiarik gabeko gazte baten ondoan arratsaldea ematera. Pozarren dago: "Sinestezina badirudi ere, inoiz baino zoriontsuago bizi naiz orain. Malariak jota eta sorbalda urratua badut ere, poz-pozik sentitzen naiz orain".

Larraga 1936an

Ahizpa bortxatu eta hil zuten garaian Larraga herri pobrea zen: "Larragan lau aberats zeuden, beste guztiak pobreak ginen. Gizonak herriko plazara joaten ziren jornalari moduan lan egitera. Pilar ahizpa 10 urterekin gari-soroetan belar txarrak kentzen ibiltzen zen. Gehienak nekazariak ginen. Pobreak ginen, bai, baina ez zitzaigun jatekoa falta. Txerria hil eta urte osorako genuen, oiloak genituen, untxiak...".

Aita UGT sindikatuan afiliatua zegoen eta ez zen mezara joaten. Arrazoi horiek aski izan ziren bere heriotza zigorra erabakitzeke: "Aita ez zegoen ezertan sartua. Langilea zenez UGTn izena emana zuen, besterik gabe. Gu mezara joaten ginen eta jaunartzea egin genuen. Oraindik gogoratzen ditut jaunartzerako utzi zidaten jantzi zuria eta gomazko zapata beltzak. Aitak ez zigun inoiz mezara joatea debekatu. Eta apaizak maltzurrenak izan ziren, beraiek izan ziren hau ala bestea hiltzea erabaki zutenak. Aberatsek eta Elizak boterea partekatzen zuten".

Larragan guztira 47 herritar hil zituzten. Errepresioa beldurgarria izan zen. Josefina Lambertoren aita

eta ahizpa fusilatu eta berehala, familiaria ondasun guztiak lapurtu zizkieten: "Nire ama jota gelditu zen. Hortik aurrera ez zen pertsona bera izan. Senarra hil zioten, alaba, eta



Maravillas Lamberto 1936ko biktimen ikur bilakatu da, aita atxilotzera joan zirenean izan zuen jarreragatik.

ez hori bakarrik, zeukan guztia kendu zioten. Alkateak lurrak bere izenean jarri zituen, eta behorra ere lapurtu ziguten. Zehatz-mehatz gogoratzen dut nolako behor puska genuen, liraina, handia, aldaka zabalekin. Behor baten jabeak altxor bat zeukan. Nire aitak lurrak eta etxea berme bezala utzi zituen behor hori erosi ahal izateko. 500 pezeta ordaindu zituen".

Lambertok ez du Larraga bistan itzultzeko gogorik. Bere ama Paulina Yoldi bakarrik gelditu zen, eta herrian ez zioten laguntzarik eskaini. Are gehiago, senarra eta alaba hil eta gutxira espetxean sartu

"Iruñean, ama gaixorik jarri zen eta alokairuko gelatik bota gintuzten. Eskaileratan lo egin behar izan genuen"

zuten, herriko okinaren emaztearekin eztabaida izan eta gero: "Hiru egunez egon zen preso, eta gu bakar-bakarrik etxean. Inork ez zigun ogi puska bat ere eskaini".

Ama gazte denboran lanean ibilitako militar baten etxera zerbitzatze-
ra bueltatu zen. Alabak, berriz, Maravillasen bortxaketan parte hartu zuen

gizon baten etxera bidali zituen: "Nire ama espetxean zegoela, oihu egiten zuen, ziegako leihoa ireki ziezaioten, itotzen ari baitzen. Julio Redín izeneko gizon batek, Maravillasen bortxaketan parte hartu zuenak, emakumea libre uzteko eskatu zuen: 'Ez al da aski bere familiaria egin diozuen guztia?' esan omen zien, eta nire ama aske geratu zen. Pilar nire ahizpak Down sindromeak jotako Julioren alaba zaintzen zuen, eta ni eskolara eramaten ninduten. Etxeko ganbaran lo egiten nuen, bakarrik, argirik gabe. Julio Redín Fragako frontean hil zen, kamioi baten barruan kiskalita. Jendeak Jaungoikoaren zigorra izan zela esaten zuen".

Iruñea eta Karatxi

Handik urtebetera, Paulina Yoldik hiriburura joateko deliberoa hartu zuen. Bi alabak gainean hartu eta Iruñeko Javier Aldapan gela bat alokatu zuen. Hasieran limosna eske ibili zen, eta handik gutxira Estafeta karrikako Gerendiain dendan lana aurkitu zuen, zakuak josten. Goizeko 4etan esnatzen zen zakuekin diru apur bat bildu asmoz: "Pilar eta biok Vianako Printzearen Plazan zegoen jatetxe sozialera joaten ginen bazkaldu eta afaltzera. *Cara al Sol* abestera behartzen gintuzten. Halako batean, ama gaixorik jarri zen eta alokaturiko gelatik bota gintuzten. Eskaileratan lo egin behar izan genuen. Ama gaixorik zegoenez eta zerbait jan behar zuenez, egun batez jantokian ogi puska bat hartu eta arropen artean ezkutatu nuen. Gure mahai berean eserita zeudenek jantokiko nagusiaren aurrean salatu ninduten, eta eskuetan makil batekin astindu zidaten. Oraindik negar egiten dut hori guztia gogoratzen dudanean".

Lambertok San Frantzisko eskola publikoan ikasi zuen. Fusilatu baten alaba izanagatik, ez zuten ikastetxean gaizki hartu. Gerra osteko Iruñea gris horretan, poliki-poliki emakumetzen joan zen. 21 urte zituela, eta koadrila-
ko lagunak adibideari jarraituz, komentu batean sartzea otu zitzaion,

1936ko biktimen legea Nafarroan

FUSILATUEN SENIDEEK, hainbat urtez egindako lanaren emaitza jaso zuten azaroaren 14an Nafarroako Parlamentuan, bertan onartu zen 1936ko altxamenduaren biktimak oroitu eta aitormen morala emateko legea. Ezkerrek proposatutako ekimenari Bilduk, PSNk, Aralar-NaBaik eta Geroa Baik baiezkota eman zioten, UPN abstenitu egin zen eta PPK kontra bozkatu zuen.



Fusilatuen senideak Nafarroako Legebiltzarrean izan ziren legea onartu zenean, tartean Josefina Lamberto.

Nafarroako memoria historikoaren legeak aurrerapen handiak dakartza. Hala, Nafarroako Gobernuak derrigortzen du fusilatuen errolda egitera, ehorzketen mapa eguneratzera eta hildakoak lurpetik ateratzeko laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematera. Era berean, ADN banku bat egitea ere aurreikusten du legeak. Bestalde, Memoria Historikoaren Lekuak izendatuko dira eta plakak jarriko dituzte haietan jazotakoa aipatuz. Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa sortuko da eta eskola liburuak errebisatuko dira gertatutakoaren informazio "egiazkoa eta zorrotza" izan dezaten. Frankismoaren sinboloak aurkitu eta kenduko dituzte. Ezkabako San Cristobal gotorlekua mantentzeko neurriak hartuko ditu Nafarroako

Gobernuak eta ez du diru-partidarik bideratu ezartzen dituen neurriak aurrera eramateko. Nafarroan halako zerbait ez gertatzeko adi egongo direla ohartarazi dute senideek.

Nafarroan, altxamenduaren aldekoek 3.500 lagun inguru fusilatu zituzten. 70eko hamarkadan horietako asko lurpetik ateratzeari ekin zioten herritarrek euren kabuz, baina oraindik asko dira hobietan daudenak. 2003an Nafarroako Parlamentuak adierazpena onartu zuen fusilatu eta errepresaliatuei aitortza eginez. 2008an Sartagudako Memoriaren Parkea ireki zuen Alargunen Herriko Elkartek, orain arte nafar instituzioen laguntzarik apenas izan duen herri ekimenak.

Urko Apaolaza Avila

amaren iritzia kasurik egin gabe: "Erokeria izan zen. Nire lagun batzuk komentura joan ziren eta haurrak laguntzeko asmoa nuenez, nik bizitakoa sufritu ez zezaten, moja sartu nintzen. Pakistango hiriburura bidali ninduten, Karatzira, itsasontziz. Oso gaizki pasatu nuen. Eguraldia oso gogorra zen eta laster malariarekin kutsatu nintzen. Oraindik sufritzen dut gaixotasun hori, ez da inoiz sendatzen. Sorbaldan ere urratu zitzaidan. Morroi baten legera egiten nuen lan. Ez zidaten ingelesa edo urdua irakatsi, eta pobrea nintzenez, mojak nirekin oso ankerrak izan ziren".

Paulina Yoldik ez zuen bere alaba berriz ikusteko aukerarik izan. Josefina Lambertok 14 urte eman zituen Pakistanen, eta ama hilzorian zegoela lortu zuen komentua utzi eta Iruñera bueltatzeko baimena. Berandu baina. Gestio burokratikoak medio, ama hil eta hiru egunera heldu zen Iruñera: "Mojei ipurdia garbitzeagatik galdu nuen nire amaren maitasuna".

Franco hil eta berehala, mojekin tirabirak hasi ziren. Lambertok aita bilatzeari ekin zion, eta mojek ez zuten bilaketa begi onez ikusi. "Zerbait eginen zuen zure aitak horrela bukatzeko" esaten zioten komentuan, eta berak erantzun: "Eta Maravillasek, zer egin zuen Maravillasek?".

"Diario de Navarran ahizpari gertatutakoa kontatu nuenean, espetxean sartuz gero ez zirela ni ateratzen saiatuko esan zidaten mojek"

Bazterrak nahasten ari zela-eta, Madrilera destinatu zuten: "19 urtez izan nintzen Madril. Zorua garbitzeko erabiltzen ninduten. Nik pobreekin egon nahi nuen, baina beraiek esklabo nahi ninduten. 80ko hamarkadaren erdialdera Salas Larrazabal jeneralak gerra garaian hildako-

en zerrenda bat argitaratu zuen, non Maravillas 'desagertua' bezala ageri zen. Nik ez nuen bitan pentsatu eta *Diario de Navarra* gutuna igorri nion, nire ahizpari gertatu zitzaiona azalduz, nola bortxatu zuten, nola hil zuten... Mojak sutan jarri ziren, eta esan zidaten espetxean sartuz gero ez zirela ni ateratzen saiatuko".

67 urte zituela, Josefina Lambertok ez zuen gehiago agoantatzeko adorerik izan: "Ordurako ez zitzaidan ezer axola. Kanean lo egin beharko nuela? Bada, kanean lo eginen nuen. Fedea erabat galduta nuen. Kanpokoei amodioa eman nahi badiezu, etxe

barruan amodioa egon behar du, eta komentuan ez zegoen maitasunik. Senide baten laguntzari esker, Misericordia Etxean leku bat utzi zidaten eta hona etorri nintzen. Orain inoiz baino zoriontsuago bizi naiz, zinez". ■



«Zerbait sortzen atxilotuko naute»

2009ko azaroan atxilotu zuten Idoia Irigorri (Sestao, 1983), hamarnaka gazteren kontra egindako operazio polizialean, Segiko kide izatea leporatuta. Orain, beste hiru kiderekin batera, gazte horiek epaitzen ari den Audientzia Nazionalari uko egin eta ezkutatzea erabaki du. Esperientzia “izugarria” dela dio, bizipen positiboz betea, baina senitartekoak “jazarpen polizial latza” jasaten ari direla salatu du.

Testua eta argazkia:

| ANDER PEREZ |

Zergatik hartu zenuen ezkutatzeko erabakia?

Espetxean nengoela, Oarsoaldeko lagunak teilatueta igo eta kateatu ziren euren epaiketaren egunean. Hori buruan geratu zitzaidan. Gerora ere beste desobedientzia kasu batzuk eman dira, Donostiako harresia, edo Xapo (Xabier Sagar-doi) eta Luis Goñirena, adibidez. Horiei jarraipen bat ematearren egin genuen ekimen hau. Egungo egoera ikusita pentsatu genuen: “Zer nolako bideak zabaltzen dira gure eskubideen defentsan jarraitzeke?”. Desobedientzia tresnaren baliagarritasuna mahai gaineratu nahi genuen. Arlo pertsonalean, atxilotu naute, espetxeratu, torturatu eta orain epaitu. Zer egingo dut horren aurrean? Ez diot inongo azalpenik eman nahi epaile bati. Ez dut onartzen haien legedia, betidanik borrokatu dut haren kontra eta beraz, ez naiz jarriko nire borondatez haien aurrean.

Zentzu horretan, zer da gehiago, Espainiako Estatuari begirako mezu, ala euskal jendarteari begirakoa?

Uste dut indar gutxien duena Estatuari begirakoa dela. Azkenean, Estatu erraldoi bat da. Gurea ekarpen txikia da eta Estatuari ez dio inongo desorekarik sortuko. Baina Euskal Herriari begira mezu garran-

tzitsua da, borroka tresnak eskura dauzkagula erakusteko balio duela. Momentu politiko konkretu batean gaude baina ez dugu zertan isildu, ez dugu zertan etxean geratu edo soilik manifestazioetara mugatu. Herritarrok horrelako ekimenak sortu behar ditugu, gu garelako inguratzen gaituena aldatuko duguna. Denbora guztian, etengabe, ekimen herritarrak sortzen dira, eta gure ekimenak ere horiek bultzatu nahi ditu.

“Nahiago dut desobedientziagatik isun bat ordaindu, obedientziagatik lana galdu baino”

Desobedientziak, ekintza politiko gisa, eragin mediatikoa bilatu izan ohi du. Nola egiten da hori ezkutuan egonda?

Elkarriketa honen modukoekin, gure borroka medioen aurrean jarritz. Edonola, ez dut uste ekimen mediatikoak direnik soilik. Are gehiago, etorkizunean, desobedientzia naturalizatu eta normaltasunez bizi denean ez dugu ezkutatu behar izango. Desobedientzia arlo guztietan aplikatu daitekeen tresna da, ez bakarrik errepresioaren aurkako eremuan: hezkuntzan, ekonomian

edo instituzioetan aplikagarria da, eta ez du zertan medioen arreta erakarri. Garrantzitsuenak Estatuarekiko konfrontazioa bilatzea da, inposatzen dizkiguten legeak ez onartzea eta horiei aurre egitea.

Hala ere, kasu honetan, ezkutatu behar izan duzue. Zein izan da horren eragina?

Ezkutuan zaudenean elkartasun sare bat osatzen da, jendearen elkartasuna eta konpromisoa beharrezkoa eginez. Etxean geldituko banintz segituan etorriko lirakeke nire bila. Baina aldiz, ekimen honen bidez, jende gehiago inplikatu dut borroka honetan, eta agian aurrerantzean, jende horrek desobedientzia praktikatu du hala behar duenean.

Horretan datza elkartasunetik konpromisorako saltoa?

Bai, azkenean, elkartasuna sentimendu bat da, baina konpromisoa hartzen duzunean arriskatzeko duzu. Eta gauzak arriskuan jartzerakoan baliagarriagoak dira etekinak.

Azken urtean desobedientziak bide emankorra egin du Euskal Herrian. Zer ekarpen egiten dio zuen jarrerak bide horri?

Interesgarriena da gure eskualdetan agertzen ari garena. Desobe-



“Interesgarriena da gure eskualdeetan agertzen ari garela. Ni, betidanik, herri mailako militantea izan naiz. Beraz, zergatik joan behar naiz auskalo nora atxilotu nazaten?”.

dientzia normaltasunez bizi nahi dugu, kaketxan artean, badakigulako egoera ez dela normala. Baina ez gara garen horretaz aldenduko. Ni, betidanik, herri mailako militantea izan naiz. Beraz, zergatik joan behar naiz auskalo nora atxilotu nazaten? Ni nire herrira noa, nire herriko jendearengana, edo nire auzoko okinak ikus nazan agertuko naiz. Ez daitezela gutaz ahaztu. Azkenean, ezkutatzek badu arrisku bat: ezkutan denbora bat ematen duzu eta horrek zure borroka desagerrarazi dezake. Gure kasuan, agertzeak, hori saihestu du.

Desobedientzia erresistentzia parametroetara mugatzen dela kritikatu ohi da. Aurrerako pausurik ematen ez duela, alegia.

Desobedientzia arlo batzuetan praktikatu izan dut, desobedientzia zenik ere pentsatu gabe, okupazioan adibidez. Eta okupazioa, desobedientzia izanik, eraikuntza ere bada, harreman eredu bat eraikitzen duzulako, besteak beste. Orain txanpon propioa erabiltzeko proiektu batzuk sortzen ari dira Bilbon eta Ipar Euskal Herrian. Hori ere desobedientzia da, eta ez da

erresistentzia, eraikuntza baizik. Desobeditzean beste sistema bat eraiki dezakezu.

Zuen ekimenak Estatuarengan eragin mugatua duela esan duzu. Zein da bidea jarrera aldaketa bultzatzeko?

Momentu honetan lau katu epaiketara batera ez joateak ez dio Estatuari kristoren desoreka sortzen. Baina gaur lau bagara, eta bihar berrogei, bai. Eta hemendik aurrera, jendea isunak ez ordaintzen hasten bada, edo epaiketetan ez parte hartzen, desobedientziak Estatuaren errepresioa baldintzatuko du, garesti aterako zaiolako polizia mobilizatzea eta espetxeak betetzea. Ordainean, guk Estatuaren kolpeak jasoko ditugu.

“Gaur lau bagara, eta bihar berrogei, Estatuari desoreka sortuko diogu”

Horrek kontraesan txiki bat dakar. Azkenean, errepresioarekin amaitzeko ekimenek errepresio gehiago sortzen dute.

Ez al dugu dagoeneko errepresio nahikoa? Lantokietan, hiru egun baino luzeagoa den katarro bat harrapatu eta kalera goaz. Zergek itotzen gaituzte, auzoak poliziez beteta daude, eta edonork amaitu dezake bere etxetik kaleratuta. Hau da, ezer egin gabe ere baditugu ondorioak. Ez gara libre, ez gara gure buruaren jabe. Eta beti egongo gara baldintzatuta, isunak jaso ala ez, espetxera joan ala ez. Baina nik behintzat nahiago dut desobedientziagatik isun bat ordaindu, obedienciaz gatik lana galdu baino, edo obedienciaz gatik espetxeratua izatea baino.

Orain arteko antzeko desobedientzia kasuak atxilotekin bukatu dira.

Nola irudikatzen duzu zuenaren amaiera?

Niri gustatuko litzaidake egiten amaitzea, gauzak egiten. Agian, elkarriketa honetatik ateratzean atxilotuko naute. Baina horrela baldin bada, behintzat, elkarriketa bat egin dut, eta jendeak irakurriko du. Zerbait sortzen atxilotuko naute. ■



Zergatik ez aukeratutako hezkuntza ereduan?

Lanbide Heziketako (LH) ikasleetatik praktikak euskaraz zenbatek egiten dituzten jakin nahian sortu zen Gehitu proiektua. Gipuzkoako LHko ikastetxeek sustatutako egitasmoa da eta azken helburua zera da: enpresetara praktikaldia egitera doazen D ereduko ikasleek egonaldia euskaraz egin ahal izatea.

| MARIJO DEOGRACIAS |

HASTEKO, enpresen errealitatea zein den ezagutu beharra zegoen eta joan zen ikasturtean inkesta egin zieten Gipuzkoako LHko 711 ikasleri. 490 enpresen datuak eskuratu zituzten. Aurten bigarrenaz gauzatu tuko dute inkesta. 2014ko iraila aldera, eragile guztien artean emaitzak aztertzeko jardunaldia egingo dute, eman beharreko urratsak denen artean adosteko.

“Kezka sortzen da pentsatzen hasita ikasle gehienak euskaldunak izanik ia zer demontre gertatzen den praktikaldian”. Halaxe kontatu digu IMHko Ekinberri proiektu-taldeko arduradun Fermin Lazkanok. Eskolako ikerketa txiki batekin hasi ziren eta ikusita emaitzak ez zirela hasiera batean uste bezain txarrak, gainerako eskualdeetan ere egoera zertan zen ikustea erabaki zuten. Horrela sortu zen Gehitu proiektua. Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan dute egitasmoan.

Iazko ikasturtean Gipuzkoako 20 ikastetxetako ikasleen datuak jaso zituzten. Neurtu nahi zuten ea D ereduko LHko ikasleak praktikak egitera doazenean zein hizkuntzatan artatzen dituzten eta praktikak euskaraz egiteko aukera izaten duten. Proiektuaren lehenengo fasea da, jakina, gero etorriko da interbentzio fasea, “datuak guztion artean aztertu ostean, enpresako ordezkari, praktika arduradun, euskara planen arduradun eta erakunde ordezkarien artean”.

2012-2013 ikasturteko inkestaren kasuan, %53 D ereduko ikasleak izan dira; %33 A eredukoak. Jasotako datuak hiru multzotan banatu dituzte: ikasleei harrera zein hizkuntzatan egin zitzaien, hau da, enpresarekin izan zuten lehenengo hartu-eman ea euskaraz izan zen –ahoz eta jasotako dokumentazioa–; enpresak izendatutako tutorearekin zein hizkuntzatan aritzen ziren, hau da, ea tutorea euskalduna zen eta hala bazen, ea euskaraz aritzen zen; eta, hirugarrenik, enpresako gainerako langileekin zein hizkuntzatan aritzen ziren. Jasotako datuen arabera, badaude enpresetan gutxienez 99 harreragile, euskaldunak izanik ere, gaztelaniaz aritu zirenak ikasleekin. “Hor badago zeregina”, Lazkanoren ustez. “Harrera da, ez dago zailtasun teknikorik eta gutxi eginda, kopurua igoko litzateke erraz”. Tutoreena zailago jotzen du. “Euskalduna egokitu behar zaizu, euskaraz egin nahi duena, lanari buruz euskaraz egiteko ohitura duena, eta euskaraz egin behar du hiru hilabetez arduradun moduan...”. Kopurua bere iri-

tziz ez da hain txarra: %42 gaztelaniaz eta %37 euskaraz aritu ziren. Baina, horrez aparte, egon badira euskaldunak gaztelaniaz aritzen direnak; inkestaren arabera, 50 kasutan, euskaldunak izanik ere gaztelaniaz egin zieten ikasleei. Beraz, “hori ere, interbentzio puntu interesgarria litzateke”.

Interbentzioa bigarren inkestaren datuak jaso eta baloratzen dituztenean definituko dute. Baina, oraingoz, hasita dira zertzalada batzuk asmatzen. Esaterako, praktiketako arduradunak bildu eta beren prozeduretan nabarmen lagatzea tutoreak euskaldunak diren ala ez, eta jarraipena egitea, “euskaldunak diren kasuetan, ikasleari euskaraz zuzentzeko eskatzeko”. Gero, enpresa buruekin hitz egiteko kanpaina letorke, batez ere, euskara planak dituzten enpresekin. Lazkanok, dena den, kontziente da proiektu honen iturburua euskararekiko kezka duten bizpahiru hezitzailearen gogotik sortu dela eta ikastetxeek enpresetan ez dutela eskuhartzerik. Hala ere, garbi dauka “lanbide heziketako praktikak ere hezkuntza eredu barrukoak direla” eta ikastetxeen ardura dela ikasleek hautatu duten ereduan izan daitezen praktikak.

Beraz, eta aitortuta ere ikastetxeen eskuhartze maila ohartaraztera mugatzen dela, nolabaiteko prozeduraren bat ezarri beharra ezinbesteko jotzen du ikaslearen hautazko eredu errespetatzeko era automatizatuan.

Badaude enpresetan gutxienez 99 harreragile, euskaldunak izanik ere, gaztelaniaz aritu zirenak ikasleekin





LHko eskaintza euskalduna?

IMHko arduradunak dienez, nolabaiteko erlazioa badago eskola ereduaren eta erabileraren artean. “Euskaraz aritu direnak, hau da, D ereduko ikasle izateak lotura du harrera euskaraz jasotzearekin, baina beste ereduak gaztelaniarekin askoz ere erlazionatuagoak” daudela, dio Lazkanok. Hori kontuan, D ereduan eta A ereduan dagoen Lanbide Heziketa eskaintza zein den jakin nahi izan dugu, datu esanguratsua baita ikaslearen euskara ezagutza maila. 2013-2014 ikasturtean erdi mailako Lanbide Heziketako ikasleen %76 A ereduan ari da eta D ereduan, berriz, %23. Hezkuntza Sailak ikasturte hasieran adierazi zuenez, euskarazko ereduak Lanbide Heziketan gora egin du eta lehen aldiz, ikasleen laurdena baino gehiago ari da euskaraz.

Lurraldeka alde nabarmena dago ereduka egiten den eskaintzan. Gipuzkoan D eredua nagusi den arren LHko ikastetxeetan, Bizkaian eta Araban A ereduaren eskaintza nagusitzen da. Hala ere, aipagarria da, esaterako, Araban nabarmen hazi dela D ereduaren eskaria, ikasleen aldetik. Eustaten datuen arabera, 2010etik 2011ra %12 igo zen LHko D ereduko matrikula. Horri gehitzen badiogu enpresatan ere belaunaldi aldaketa ematen ari dela eta euskaldunak izateaz gainera, ikasketak euskaraz egin dituztenak gehiago direla, “lanerako salto hori ere errazago gertatzen da, euskara teknikoaren erabilerarako arazo gutxiago dutelako”. Hori dela eta, Lazkano baikorra da, beti ere interbentzio faserara heltzea adosten bada. Eta horretan 3-4 urte barru berriz neurtzerik izango litzateke egindako lana, “ia interbentzioak eraginik izan duen ala ez”. ■



Lanbide Heziketako ikasleen euskara erabilera praktika garaian



Tutorearekin			
Eredua	D	Eusk.	Beste bat
	Beste bat	%50	%78
		%22	%50

Harrera ahoz			
Eredua	D	Eusk.	Beste bat
	Beste bat	%67	%71
		%29	%33

Iturria: Makina Erremintaren Institutua, Ahize-AEK eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2013ko udaberria.

Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Abortuaren legea aldatzearen kontra PPko boto emaileak ere

Espainiako Gobernuak onartu nahi duen abortuaren lege erreformak kritika ugari sortu du, baita PP barruan ere. Hego Euskal Herrian mobilizazio eta protesta deigarriak egin dituzte.

| SAIOA ALKAIZA GUALLAR / GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“ABORTUAREN LEGEARI dagokionez, gaur egun dagoen bezala uztearen alde zaude ala Alberto Ruiz Gallardon ministroak proposatutako erreformarekin bat egiten duzu?”, galdetu du Sigma Dos enpresak *El Mundo* egunkari espainiarrarentzat egindako inkesta batean. Erantzun dutenen artean %73,5ek legea ez ukitzeko eskatzen dute, tartean PPko boto-emaileen %52,9k.

Inkestari erantzun dioten artean %16,6 bakarrik dago abortuaren lege berriaren alde. Rajoyren alde bozkatu zutenen artean herena baino gutxiago daude ados erreformarekin (%31,5).

Adin taldeei erreparatuz gero, 65 urtetik gorakoen artean %57,9 dago erreformaren kontra eta portzentajea hazi egiten da gazteagoen artean. 18 urtetik 29ra bitartekoaren artean %84,3k baztertzen du neurri berria.

Feministek desobeditzeko eskatu diete euskal erakundeei

Polemika-iturri izaten ari da Espainiako Gobernuak emakumeen eskubideak mugatzeko hartu nahi duen erabakia. Euskal Herriko mugimendu feministak administrazio autonomikoei erreforma ez aplikatzeko eskatu die, horren bidez emakumeari erabakitze eskubidea kentzen zaiola arrazoituta.

Gurutzeko ospitalean abenduaren 31n egindako agerraldi jendetsuan, mugimendu feministako kideek azaldu zuten “biktima pasi-



Talde feministen ustez lege erreformak “biktima pasibo” bihurtzen ditu emakumeak.

bo” bihurtzen dituela lege-erreformak emakumeak. “Erabakitze gaitasuna ez duen subjektu” bezala markatzen dituela uste dute. Legea aldatuko balitz, ilegala litzateke abortu farmakologikoa. Alegia, pilula hartuta haurdunaldia etetea. Debeku hori salatzeke, pilula bana ahoratu zuten agerraldian zeuden feministek. Hala, legez kanpo gertzea kritikatu zuten.

Hainbat taldek deituta, itxialdiak eta elkarretaratzeak egin zituzten abenduaren 27an eta 28an. “Abortatzeko eskubidea” eta “Abortoa, libre eta doan” leloak oihukatu zituzten, besteak beste, Espainiako Gobernuak egin nahi duen Abortuaren Legearen Erreformaren aurkakoei.

Bilboko Gurutzetako Ospitalean itxialdia egiten saiatu ziren 70 pertsona inguru, baina ertzainek “bortizkeria handiz” bota zituz-

ten. Lagunetako bat identifikatu eta atxilo hartu zuten, “erresistentzia” leporatuta. Iruñean, Virgen del Camino ospitalean Elena Lakabe Nafarroako Abortuaren Aldeko Batzordeko kideak hartu zuen hitza. Abortuaren lege erreforma salatu eta erabakitze eskubidearen alde egin zuen. “Soilik aberatsek abortatu ahalko dute baldintza onetan. Lotsagarria da”. Horregatik, kalera ateratzeko eskatu zien herritarrei. Donostiako Ospitalean gaua pasatzen utzi ez bazieten ere, eraikinaren kanpoaldean geratu ziren hainbat pertsona.

Protestak sarean jarraitzeko

Abortuaren erreformari kritika egiteko eta protestak antolatze asmotan *Abortatzeko Eskubidea* (abortatzekoeskubidea.blogspot.com.es) bloga ireki dute kontra dauden eragileek. Bertan jaso dituzte mobilizazioetako deialdiak eta protesten argazki eta bideoak.

Horrez gain, Facebooken Abortatzeko Eskubidea orrialdea eta Twitterren @AbortoEskubidea erabiltzailea sortu dituzte. Twitterren, #AbortatzekoEskubidea traola erabiltzeko eskatu diete herritarrei. Erabiltzaileen artean, #Abortualibre etiketa ere zabaldu da. ■

argia.com Hego Euskal Herriko ospitaleen aurrean egindako mobilizazio eta protesten bideo-bilduma ikusgai duzu hemen.



‘Lurraldea eta Hizkuntza’ jardunaldiak 16an eta 17an

Lurralde antolaketak, hazkunde urbanistikoak esate batera, hiztun komunitateetan eragiten du, hizkuntza aldaketak sorraraz ditzake. *Lurraldea & Hizkuntza* jardunaldietan kontzeptu hori bereziki arnasmuneetan nola garatzen den landuko dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak eta Kontseiluak antolatutako Donostian urtariraren 16an eta 17an egingo diren jardunaldiak. UEU izango dute bidelagun bi egun horietan. Aipatu lehen hiru erakundeek *ELE / Arnasmuneak hedatuz* proiektua abian jarria dute eta berau gizarteratzeko antolatutako jardunaldiak.

Bi eguneko saioek hiru helburu dituzte: batetik, geografia eta hizkuntza-aren arteko harreman estuaz hausnartzea; bigarrenik, lurralde antolaketak eta hirigintzak euskararen hiztun komunitatearengan duen eragin zuzenaz ohartaraztea; hirugarrenik, eragin hori kontuan har dadin hartu beharreko neurriez hausnartzea, kalteak murrizteko eta onurak indartzeko.

Euskal Herriaz kanpoko arnasmuneetako (hizkuntza gutxiagotua nagusi den gune geografiko edo soziofuntzionalak dira) esperientziak entzun ahal izango dira Donostian, baita herri euskaldunen bizipenak eta beharrak mahai gainean jarri ere.

ELE / Arnasmuneak hedatuz sortu aurretik Kontseiluko hainbat bazkide ari ziren alor hori jorratzen. Bertsozale Elkartea, Emun, Euskal Herriaren Euskaraz, Topagunea eta UEMak lan-taldea osatua zuten. Haiek, egindako gogoetatik ondorioztatu zuten arnasmuneek duten garrantziaz jabetu behar dutela eragileek eta gizarteak. Arnasmuneen garrantziaz gain, euskararentzat gune berriak irabazteko jendarte aktibatzea proposatu du lan-taldeak.



Diru-bilketa deialdia Iruñerriko Mintzakideek

TOPAGUNEAK kudeatzen duen Mintzakide egitasmoa kanpaina egiten ari da dirua biltzeko. Proiektuak tamaina handia hartu du eta kudeaketa gero eta zailagoa da. Topaguneak 2004an mintzapraktika programa abian jarri zuenean 80 boluntariok hartu zuten parte. Gaur egun 600 mintzakidetik gora aritzen dira Iruñerrian. Mintzapraktikan parte hartzen dutenak boluntario dira, eta kudeaketaz arduratzen direnak aldiz, profesionalak. Sarea zabaltzeko, eta berau koordinatzeko, elikatzeko eta gehiago handitzeko baliabide ekonomikoak emendatzea beharrezkoa dela dio Topaguneak. Diru bilketa abenduan hasi zuten, eta urtariraren 20 arte iraungo du. Gutxienez 5.000 euro bildu nahi dituzte eta 2.000 euro inguruan dabilta. Ekarpenaren arabera, hainbat sari ari dira banatzen laguntzaileen artean. *Zu gabe ezin* kanpainaz informazio gehiago helbide honetan: <http://ttiki.com/59188>

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

2014a hobia izango da... beraientzat

GOBERNUEK, finantza erakundeek eta patronalek, euren esklaboei indarra emateko edo, diote 2014a hobia izango dela. Tunelaren bestaldean argia ikusten dela esaten dute eta krisia jada gaindituta dagoela; enplegua ere sortuko dela diote. Baina Euskal Herrian 200.000 langabetu daude, gazteek ez dute lanik aurkitzen eta euren proiektuak aurrera ezin eramanik dabilta. 2014a hobia izango dela diote, eta edozein ekonomialarik edo analistak daki enplegua sortzeko BPGaren %2 hazi beharra dagoela. Eta oso urrun dugu zifra hori. Langabezia denbora luzez gure artean egoteko etorri da. Kapitalismoak beraz, lan prekarietatea aprobetxatzen, pertsona erreserba handia izango baitu, desesperazioaren infernutik ateratzeko mugikortasun geografiko eta funtzionalerako prest dagoena.

2014a hobia izango dela diote, soldatak jaisten ari diren arren, gutxieneko soldata 645 eurotan izoztu duten arren, prezioak igo diren arren... Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna handituz doa eta pentsionistek erosteko ahalmena galdu dute. 2014a

hobia izango omen da, kapitalismoak sorturiko krisiak oinarritzeko eskubide sozial eta laboralak txikitu dituen honetan. 2014a hobia... Baina denok pobregara, ezberdinago, koldarrago eta otzanago gara; borrokarako grina ere itzali zaigu, elkartasunik ez dugu eta "salba dadila ahal duena" pentsatzen dugu.

Kapitalismoaren kudeatzaileek eta euskal patronalak, jada prest dute 2014a igaro eta krisiak hor segitzen duela ohartzen garenerako erantzuna. 2014an krisia gainditzen ez bada, langabezia maila jasanezinetan mantentzen bada, pobreziak eta bazterketa sozialak handitzen segitzen badute, errua langileena, sindikatue-na eta mugimendu sozialena izango da, euren eskubideak defendatzeagatik lan gatazkak eragin dituztelako. 2015a iritsi baino apur bat lehenago kapitalisten lelo bera entzungo dugu: 2015a hobia izango da... beraientzat, beti bezala! Uste dute langile klasea inozoa dela.

Juan Mari Arregi



AHTk hiltzen du Europar ehun urtez osatutako tren sarea

Tren lasterra saldu zaigu hegazkin kutsatzaileak ordezkatzeko alternatiba iraunkortzat eta tren sare zaharra modernizatzeko tresna moduan. Kritikoek diote alderantzizkoa ekarriko duela. Ekarriko? Dagoeneko bistakoak dira AHTren ondorio kaltegarriak: entzun Europako tren sarean barrena luzaz mugitu den adituari.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

AHT EREDUKO TRENTA LASTER BAT sartzen den lekuetan beti eragiten du beste tren askoz merkeago eta pittin bat mantsoagoak ezabatzea. Bidaia bide berri karioagoa erabiltzera edo trena baztertzea. Ondorioz, negozioetako jendea edo turista bai pasatzen da hegazkin zerbitzu konbentzionalatik tren lasterretara, baina herriarren gehiengoak derrigortua da autoa, autobusa edo *low-cost* hegaldiak usatzea.

Europak aurreko ehun urtetan nazioarteko trenbide sare bizkorra osatzeko ahalegina burutua zuen, bidai eroso eta azkarrak prezio merkean eskaintzeko. Zerbitzu horietako batzuk, gainera, oraingo AHTak baino azkarragoak ziren. “Eliteentzako tren lasterrek eraikitzea ez zen batere beharrezkoa”.

Horrela laburbiltzen du Kris De Decker Bartzelonan bizi den holandarrek AHTk dakarren. Kazetari lanetan *free-lance* gisa ari den De Deckerrek *Low Technology Magazine* eta *No Technology Magazine* plazaratzen ditu, nederlanderaz, ingelesez eta (atzerapenez) gaztelaniaz. Proiektuaren aurkezpenean dioenez, “Teknologia handiko [high-tech] gizarte iraunkorra aldarrikatzen duen iritzia nagusiak uste du gaurko gure bizimodua aldatu beharrik ez daukagula. Ez da errea-

lista, baina ondo saltzen da. Hala ere gure bizimodua aldatzeak ez du esan nahi Erdi Arora itzuli behar dugunik gaurko erosotasun guztiei uko eginik. Neurri murriztagoko zibilizazio industrial bat ere bada posible... baita dibertigarriagoa ere!”.

De Deckerrek duela bost urte irakurleei jakinarazi zien aurrerantzean ez zuela hegazkinez bidaiaituko, *Low Technology Magazine* izenarekin koherente izan nahian. Geroztik Europa osoa zeharkatu du behin eta berriro, Helsinkitik Malagara, Londrestik Budapestera. Baina aitortzen du urtetik urtera gaitzago zaiola promesari atxikitzea. Abiadura handiko trenen erruagatik nazioarteko bidaiak izugarri garestitu dira eta, aldiz, desagertu dira lehendik zeuden ibilbide asko, oraingo berriak bezain lasterrak eta askoz merkeagoak zirenak.

Bi froga dauzka De Deckerrek pertsonalki ezagutzen eta nozitzen dituenak. Amsterdam eta Paris Bruselan barna lotzen dituen trenbidea da lehena. 1927an *Etoile du Nord* trenak lotu zituen, tarteko 545 kilometroak zortzi ordutan zeharkatuz. 1957an bost ortu eta erdi behar zituen, 1971n bost. Lau ordu eta 20 minutu aski zituen 1995ean, eta gainera gaueko beste trena bazen aukeran, zortzi ordu behar zituen.

Wikipediatik hartutako argazki handian *Thalys* tren lasterra Frantziako Alpeetako Bourg-Saint-Mauriceko geltokitik igarotzen. Honaino iristen dira, uda eta negu, urtero milaka oporzale, bere lau *Arc* elur estazioekin Europako turismo gune handienetakoa den *Paradiski* eremura: eski egiteko 425 kilometro pista, lotarako 35.000 gela, 200 saltoki... Bourg-Saint-Mauriceraino TGVz gain *Thalys* eta *Eurostar* tren lasterrek Alpe elurtuetaraino hurbiltzen dituzte bidaiaiak Londrestik bezala Amsterdametik eta Paristik. Irudi txikian, hau ere *Wikipediarena*, AEBetan Washington eta Boston lotzen dituen *Acela Express* AHTk zeharkatzen duen Kingston herriko estazioan dagoen oharra: “Abiadura Handiko Trenak pasatzen dira bertan gelditu gabe! Mesedez, aldentu trenbidetik”. Ezin hobeto laburtu dute eliteek beren zerbitzurako antolatutako tren lasterrak herriar askori ekarri dien egoera berria.

1995ean kendu zuten *Etoile du Nord*, bere ordezkari gaur oraindik dabilen *Thalys* tren lasterra jartzeko. 3:19ra laburtu da bidaia. Gaueko zerbitzu alternatiboa ere galdu zen. Eta prezioa? *Etoile du Nord*en garaian Europa mailako prezio estandarrek zeuden; gaur kostako litzateke 66 euro. Aldiz, *Thalys* hartzekotan, propagandak dio 44 euro direla askoz lehenagoko billete urrietako bat lortzekotan, baina egunean bertan 209 balio dizu, hiru aste lehenago erosiz gero 119-129 aterako zaizu. Ondorioa: denboran laurdena irabaziz, ticketa bi edo hiruz biderkatu dizute.

Hobe abioi merkea hartzea?

Are okerragoa da De Deckerrek salatu duen bigarren ondorioa: tren lasterrak alternatiba oro itoazten ditu. *Thalys*en ibilbidea erdi prezioan –66 eurotan– egin daiteke bost tren ezberdin erabiliz, 8 orduko bidai konplikatuan: “Abentura bat da”.

Bigarren adibidea Bartzelona eta Paris arteko bidaia da. Joan den abenduaren 15ean estreinatu dute bi hirien arteko AHTa. Horrekin batera kendu dute gauaz bidea hamabi ordutan egiten zuen *Trenhotel Joan Miró*. AHT berriak 170 eurotan eramango zaitu Parisera. *Trenhotel Joan Miró* hartu zenezaken 70 eurotan eta gainera gau bateko



kopuru berdina behar da bidaian (lehen gauez lotan egina orain egunez) baina doble pagatuta.

Garestitze horren onuradunak *low-cost* hegaldiak dira. Bartzelona-Amsterdam joan-jina *Thalys*ez 580 eurotan egiteko ordez, hegazkinez egin daiteke 100 edo 200 eurotan. AHT ezarri den beste hiriburuen artean berdintsu, horregatik dio De Deckerrek: “Masak orain aireplanoz dabilta, eliteak hartzen du tren. (...) AHTek daukate teknologia sofistikatu antolatutako beste soluzio ‘iraunkorrek’ daukaten arazo bera: garestiegiak dira orokortu ahal izateko. Horregatik, 10.000 kilometroko AHT sarea eraikitzeak ez du geldiaraziko Europako airezko trafikoa”.

Dezaketen bezeroak ari dira aldatzen hegazkin garestietatik tren karuotara, batez ere distantzia ertainetan, tren hegazkina bezain azkarraren denetan. Gainerako jende guztiak *low-cost* aireplanoa hautatzen du ibilbide luzeetarako eta laburragoetarako kotxea edo autobusa. AHTa soilik hartzen du hegaldi luzerako aireportu batera hurbiltzeko edo bidai merke bat lortu deza keenean. Eta gutxi aukeratzen du tren lasterra bost ordu baino luzeagoko ibilbiderako.

Europak, dio De Deckerrek, bidaia luzeak iraunkor bilakatzeant mugatu beharra dauka airezko trafikoa. Horretarako beharrezkoa du tren sare merkeagoa, justu orain-txe suntsitzen ari direna bezalakoa, “bestela bidaiatzea aberatsen pribilegioa izanen baita”. Berrito ere. ■



hotela aurrezten zizun. Tren berriak eduki dezakeen alternatiba bakarra, eskualde mailako trenak lotzea da, konplikatua, luzeagoa (16 ordu)... eta garestia.

Amsterdam eta Bartzelona artean bizi denez, De Deckerrek 2014an joan-etorria 580 euro pagatu beharko du. 2013an egin zezakeen 360 eurotan *Thalys* eta *Trenhotel Joan Miró* uztartuz. “Baina 1990eko hamarkadan, *Etoile du Nord* eta *Trenhotel* hori konbinatuz bidaia egin zezakeen 270 eurotan (kalkulatuz prezioa oraingo tarifen arabera). Handik hona, prezioa bikoiztu egin da eta bidaiaren iraupena gutxi gora behera berdin mantendu”. Horrelakorik ez dizute kontatu AHTren propagandistek!

Baina kalte gehiago sufritzekotan gaude. Paris eta Bartzelona arteko tren lasterra estreinatzearekin batera eten da Bartzelonaren eta Erdiko eta Ekialdeko Europaren arteko lotura. 2010ean Montpellier eta Espainiako mugaren arteko AHTa ezarri zenetik desagertu dira Montpellier eta Bartzelona arteko *Talgo* azkarra, baita Kataluniako hiriburu 1994a arte eta Suitzako Geneba 10 ordutan lotzen zituena ere.

Ikusi konparazio harrigarri gehiago. 2012a arte Bartzelona eta Zurich lotzen zituen *Trenhotel Pau Casals* gauekoak eta Bartzelona eta Italiako Milan *Trenhotel Salvador Dali* gauekoak. Haiek desagerturik, orain Milanera edo Zurichera joateko tren laster ezberdinak lotuz ordu



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Zain dago ama...

BORTIZKERIA, biktimak eta giza eskubideak jorratu ditut duela gutxi Ipar Irlandako Pat Finucane Centerreko (PFC) kide batekin Derryn egindako elkarrizketa batean. Hala aipatu gabe ere, printzipioez eta pragmatismoaz jardun genuen besteak beste. “Egia edota justizia?” bikotean islatuta agertzen den hausnarketa da. Kontua da elkarrizketatuak indar handia egin zuela pragmatismoan. Irlandako iparraldeko gatazka odoltsuan –adibidez duela 40 urte– hildako askoren kasuak auziperatu barik daude oraindik, eta kasu horietan familiek ez dute hilketaren berri askorik, egiaren bila jarraitzen dute. 1998tik gaurdaino lan asko egin da esparru horretan, baina oraindik asko falta da, eta mugimendu errepublikarrak, esaterako, beti aldarrikatu izan du ikerketak bideratzeko batzorde independente baten beharra. Baina horrek, izatekotan ere, denbora behar du.

Horregatik, elkarrizketatuak esaten zuen biktima askoren gurasoak hiltzen ari direla eta ezin zela egon batzorde independente horren zain. Familia horiek egia behar zutela lasai bizi –edo hil– ahal izateko eta egia hori eman edo hartara ahalik eta gehin hurbiltzeko ahal ziren bide guztiak baliatu behar zirela, balizko batzorde independente hori lortu, eratu eta haren lana itxaron gabe.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak bere agiria ezagutzera eman eta bi egunera egin nuen elkarrizketa eta haren bulegotik ateratzekoan, pragmatismoaz aritu nintzen bueltaka, presoak eta haien familiak buruan. Zenbat seme-



alaba eta gurasok izango zuten elkarrekin izateko aukera oraingo agiri hau lehenago heldu izan balitz? Zenbat guraso gehiago hilko ziren haien seme-alabak libre ikustearen atsedenaekin? Eta ez nabil gatazkaren konponbidez, nabil honek irauten duen artean beharrezkoa den pragmatismoaz. Baina presoek erabaki behar zuten eta 2013ko abenduaren 28an izan dugu horren berri.

BERANDU? Guraso batzuentzat bai, seme-alaba askorentzat ere bai, baina oraindik guraso asko dagoenez zain, inoiz ez da berandu... espetxe egoera gutxi-asko hobetzeko eta are gutxiago askatasunerako. Berandu beste batzuk lehenago egin dutelako? Ba bai, baina garaiz ere bai, beranduago ere erabaki zitekeelako.

Jakina, ez da presoena gurasoak garaiz ikustera ez iristearen erru guztia. Atzerria, espetxea eta heriotza pakete berean izan zitezkeela bazekien armak hartzen zituenak. Estatuaren ankerkeriaz ere bai. Eta Estatuak krudelak dira sakabanaketarekin, zuzenbidean –ez zuzentasunean– krudelak. Krudelak preso gaixoeekin. Demokraziaren izenean krudelak. Hori guztia ere senide eta presoaren arteko hesi da.

EPPKren esperotako urratsaz jardun du askok. Mercedes Gallizo espetxetako agintari ohiarentzat, ilargiko hura moduan, “urrats txiki-handi bat izan da”. Jaurlaritzarentzat oraindik gauzatu behar den urratsa. Urkullu lehendakariarentzat, erabaki esanguratsua. Ezker abertzalearen aburuz oso garrantzitsua. Esparru unionistan iritzi kontrajarriak irakur daitezke:


Manu Montero EHUKo errektore ohiak, adibidez, zera idatzi zuen *El Correo*-n: “Bloke demokratikoa, beste batzuetan ez bezala, ez da amarruan erori eta eszeptizismo egoki batekin hartu du gutuna”). Joseba Arregi jeltzale ohiarentzat aldiz, “muturreko ezker nazionalistak” eztabaida bere errotara eramatea lortu du berriz, “eta guk, mantsoki, haien esanak jarraitzen ditugu eta ez gara gai demokrazia-ri eta Zuzenbide Estatuari, askatasunari, interesatzen zaion eztabaida inposatzeko”. (*El Correo*, 2014-1-3).

Eta EPPK-k sortutako kalteak onartu ditu, eta beste urrats bat da, zalantza barik, baina nago ni, bestearen mina ulertzeko gerratik aldendu eta mina duenari hurbildu behar zaiola, buruz lehenbizi eta, ahal bada, fisikoki ondoren. Oraindik gutxi, baina Euskal Herrian hainbat koloretako biktimak dioten gisan, diharduten gisan. Eta presoak gerran dira oraindik, Estatuaren legeak onartuta ere, kaltetu gura dituen Estatuaren aurkako gerran. Baina urrats bat da, eta etorriko dira beste urratsak ere: armak, ETaren desagerpena... beharrezkoak izango direlako. Pragmatikoak, ezinbestean. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Santurtzi

2 lagunentzako bina sarrera
Urtarrilak 23 · 20:30
Serantes Kultur Aretoa

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1



HAMLET Tolosa

2 lagunentzako bina sarrera
Urtarrilak 24 · 20:30
Leidor Antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



HAMLET Hondarribia

2 lagunentzako bina sarrera
Urtarrilak 25 · 20:00
Itsas Etxea Auditorium

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

3



HAMLET Arrasate

2 lagunentzako bina sarrera
Urtarrilak 26 · 19:30
Amaia Antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2396. Argia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea (Markina-Xemein)
- Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Jon Goti Mendiola (Usansolo)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Gregorio Ugartemendia Zubillaga (Tolosa)
- Gernika-Lumoko Udal Liburutegia (Gernika-Lumo)
- Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

ARGIA EGUTEGIA 2014

- Raco De La Corbella (Valentzia)
- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)

HALA BEDI IRRATIA 30 urte CDa

- Iruñe Eguen Balantzategi (Elorrio)
- Oñeako Udal Liburutegia (Oñe)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)

DAMBA Hautsi... eta izan zaitez zu CDa

- Amaia Amarez Uria (Gasteiz)
- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- Lalo Etxebarria Aranburu (Hernani)
- Miren Iturrioz Guio (Andoain)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

ginea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com